

Kultura

'Yoko eta lagunak' filma eta Irene Escolar Goya sarietako hautagaien artean daude > 13



Durangoko feministek Paul Abasolok jarritako salaketa baten berri eman dute

Paul Abasolo durangarrak mugimendu feministako kide baten aurka salaketa bat ipini duela informatu du Durangoko Plataforma Feministak. Sexu era-soengatik hiru urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten Abasolori, baina 2011n indultatu egin zuen Espainiako Gobernuak. Geroztik, mugimendu feministak publikoki salatu du kasua, bere izena zabalduz. > 2

“Diru gehiago bideratu behar litzateke minbizia ikertzera eta gaixo eta familiei laguntzera” > 18



Andoni Mesa | Tsunami Laranja



Etxebakoak, bizi hobe baten bila

Etxerik barik dauden 20 laguni babes ematen diete Durangoko Etxepel zentroan, gizarteratzen laguntzeko asmoz. Gaez lotarako pentsioa zabaltzeko beharrezana dagoela diote, baina ez dute finantziaririk lortzen. > 3

A. Urreta
podólogo



- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214406

MIEKO 4D

ESPECIALISTAS EN
ECOGRAFIA PRENATAL



Orain, Durangon, MiekO4D

Zure ekografiarik osatuena 50 eurotik gora, eta
20 euroko beharpenak bigarren ekografiatik aurrera.

Olleria, 5 etxebaia DURANGO · Tel.: 690 048 681

Abadiño > 4

Zelaietako berrantolaketaren inguruko ika-mika udaletxean

Elorrio > 11

Fytasako sarrerak itxi ditu udalak, istripuak saihesteko

Atxondo > 11

David Cobos alkateak ez ditu sinatu AHTaren aktak

Durangaldea > 12

400 ipuin laburretatik, hiru onenak saritu dituzte

Herririk herri

Gizarte politikarako inbertsioa %20 igotzea da gobernuaren asmoa

Gobernuak aurrekontu zirriborroa aurkeztu du

DURANGO Markel Onaindia EAJ eta PSE-EEren gobernu koalizioak 2016rako udal aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuen eguaztenez, goizez alderdiei eta arratsalde prentsari. 31,2 milioi euroko aurrekontua proposatu dute, eta ezaugarriarik esanguratsuenak, gizarte politikarako inbertsioak %20 handitzea. “Aurrekontu orekua, errealista, eta, batez ere, aurrekontu soziala” da Aitziber Irigoras alkatearen esanetan.

Pilar Ríos alkateordeak aurrekontuan hiru ardatz estrategiko jasotzen direla azaldu zuen. Lana, gizarte ekintza eta berdintasuna. Lana eta formazioaren arloan 470.000 euro bideratzea proposatu dute; Durangon, 1.688

langabe daude (966 emakumeak dira), eta horien kontratazioa bultzatzea beharrezkoa dela uste dute. Gizarte ekintzari lotuta, nobedade bat dakarte zirriborroan: pertsona nagusientzako jantoki bat sortzea, nagusien egoitzan. Gainera, JAEDen pobrezia energetikoaren aurkako kanpaina babestuko dute, eta alokairu programa indartu ere bai. Bestalde, garrantzi berezia eman zion Riosek berdintasun arloari. Jabekuntza Eskola indartzea eta Hiri Debekatuaren Mapa eguneratzea gura dute.

Bestalde, 127.000 eurogaz administrazio elektronikoa martxan ipintzea da beste ideia bat, bilkurak aho batez onartutakoa. Beste inbertsio batzuk udal so-



Ezkerretik eskumara, Pilar Ríos eta Aitziber Irigoras.

berakinetik egingo lituzkete, urtean zehar erabakita.

Zergak, bere horretan

Aurrekontua osatzeko beharrezkoak dira herritarren zerga eta tasak. EAJk eta PSE-EEk

bere horretan mantentzea proposatu dute, igo barik.

Aurrekontuari zuzenketak egin ahalko dizkiete urtarrilaren 15era arte, eta batzordeetan landu ostean, osoko bilkuran eztabaidatuko dute.

Olentzero eta Mari Domingi gabonetako ipuinean

MALLABIA J.G.

Mallabiko umeek Olentzerori eta Mari Domingiri beraien opari eta desioak eskatzeko aukera izango dute, zapatuan, frontoian antolatuko duten jaialdian. Antolatzaileek 19:00etarako jarri dute hitzordua. Ekitaldian, lehenengo, gabonetako ipuina kontatuko dute, *Amama Inaxiren ipuina*, hain zuzen ere. Ondoren, Lagun artean, Mendibil eta Jasokunde Mallabiko abesbatzetako kideek gabonetako abesti tradizionalak abestuko dituzte.

Aurten, antolatzaileek azaldu dutenez, sarreran euro bat ordainduta ekitaldi bukaeran txorizo pintxo eta edaria banatuko dituzte ekitaldira bertaraten direnen artean.

Paul Abasolok feminista bati salaketa ipini diola informatu dute

Sexu erasoengatik zigortuta, 2011n indultatu egin zuten Abasolo durangarra

DURANGO M.O.

Durangoko Plataforma Feministak sare sozialen bidez jakinarazi du Paul Abasolok feminista bat salatu duela epaitegian. Abasolori 3 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten sexu erasoengatik, baina Espainiar Gobernuak indultua eman zion, 2011n. Jose Luis Rodríguez Zapateroren gobernu sozialistaren azken indultuetako bat izan zen.

Baina, indultuak ez zuen eztabaida lurperatu, eta mugimendu feministako hainbat kide publikoki salatu dute kasua

urteotan, Abasoloren izena kaleratuz. Udalak ere indultuaren aurkako mozioa onartu zuen bilkuran, aho batez bozkatuta.

Erasoa dela uste dute

Plataforma Feministak ekinbide judiziala gaitzetsi du: “Salaketa hau erasotzat hartzen dugu. Honekin ez du soilik kide konkretu hori interpelatu, mugimendu feminista osoaren aurkako eraso da. Salaketa honen jomuga mugimendu feministaren kriminalizazioa da”.

Gogoratu dute mugimendu publikoki salatu dituela

Abasolori 3 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zioten, baina Espainiar Gobernuak indultua eman zion

“Honekin ez du soilik kide konkretu hori interpelatu, mugimendu feminista osoaren aurkako eraso da”

eraso guztiak, baita “erasotzaile sexisten inpunitatea” ere. Euren jarrera horregaz lotu dute salaketa: “Lan hori eteteke ahalgintzat ulertzen dugu salaketa hau”.

Babes kanpaina

Salatutako emakumea babesteko kanpaina hasi dute. Sinadura bilketa zabaldu dute Interneten; “prozesu administratiboa etetea, eta mugimendu feminista eta bere kideak babestea” eskatuko da sinaduragaz. Gaur, barikua, elkarretaratzea deitua zuten epaitegi aurrean, 09:15ean. Horrez gain, datorren eguaztenez prentsurreko bat emango dute, epaitegi aurrean.

Feministen ustez, Abasolok ezarritako “salaketak ez du funtsik”, eta martxan dagoen bide administratiboa etetea eskatu dute.

Energia kontsumo eraginkorra gura dute udaletxean

IZURTZA J.D.

Udal eraikineko eraginkortasun energetikoa zein den neur-tuko duen azterketa bat agindu du Izurtzako Udalak. Esaterako, udaletxeko leihoak aspaldikoak dira, eta beroa galtzen da zirrikietatik. Gainera, kontuan hartu behar da udaletxeak ez duela berogailu sistema zentralik. Horregatik, udaletxeko gela denak berotuko lituzkeen biomasa galdara bat jartzea ere bada asmoa, horrela berokuntza sistema zentrala ahalbidetuz. Azken udalbatzarrean egindako kreditu aldaketan ostean, 42.420 euro bideratu dituzte helburu horretara.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko abenduaren 18a
13. urtea - 615. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martínez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028
Tirada: 11.500 ale

Laguntzaileak:



“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua”



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



“Etxepel zentroak bizia salbatu dit, dagoeneko ez naiz bakarrik sentitzen”

Etxepelen bizi diren eta beraien izena azaldu nahi ez duten bi pertsonen bizipenak jaso ditu ANBOTOk



Etxepeleko egoitzan burututako solasaldia, Alberto Estefanía arduradunagaz eta etxerik barik dauden bi erabiltzaileagaz (nortasuna gorde gura izan dute).

DURANGO **Markel Onaindia** Intxaurrendoko Etxepel zentroan sartu, eta Gabonetako apaingarriak ipintzen topatu ditugu hainbat lagun. Etxebakoak dira. Etxeagaz batera familia ere galdu zuten, eta bakardadean eta gizarteak baztertuta bizi izan dira geroztik. Hainbat topiko eta aurreiritzi daude ezarrita eurengan, eta kale bazterrean limosna eskatzen irudikatzen ditugu. Baina horren atzean, era askotako istorio dramatikoak daude. Noraezean zeudela, Caritasen bultzatutako eguneko zentroagaz topo egin zuten, eta aurrera begiratzeko babes bat daukate orain. Etxepelen aurkitu dute, Gabon giroan bezala, urte osoan behar duten familia.

Kazetariagaz euren bizitzaz berba egitea ez zaie erraza egiten, eta euren nortasunak babestu gura izan dituzte. Baina egoera sozializatu gura dute. 54 urteko gizona eta 47 urteko emakumea hurreratu dira solasaldira, Alberto Estefanía Etxepeleko arduradunagaz batera.

Autoan lo egiten

Gizonak 13 urte daramatza Durangon bizitzen. Andreagaz alokairuan bizi zen, eta, duela urte eta erdi banandu zirenean, etxerik eta errekursorik barik geratu zen, kalean. “Hasieran etxe prekario batean egon nintzen, baina hotz handia sartzen zen, eta autoan lo egitea erabaki nuen. Caritasera jo nuenerako, jateko ere ez neukan dirurik. Hemen, jaten eman didate, baita arropa ere, eta ikastaroak egin ditut”. Uneotan, Caritasen Durangon dauzkan pisuetako ba-

tean egiten du lo, eta oinarrizko errentaren laguntza tramitatzen dabil Etxepelekoekin. Ez hori bakarrik, arreta eta laguntza psikologikoa ere jasotzen du tutoreen partetik. Egunero joaten da: “Ortuan lan egitea gustatzen zait, sukaldian ibiltzea eta garbitzea ere bai”. Asteburuetan itxita egoten da zentroa: “Txar-toen asteburuetan pasatzen dugu. Bakardadearen pisua da, baina guretzat normala da”.

Lanerako prestatzeko ikastaro bat egin du, eta laster lana topatzeko esperantza dauka. “Ea jendeak gure egoeran daudenak babesten dituen. Gauetik egunera, edozein gera daiteke gure moduan”.

Alaba barik

Kasu gogorragoa da 47 urteko emakumearena. Badu familia, baina ez da eurekin konpontzen, eta bere alaba ere familiak zaintzen du. Etxe atarrietan lo egin izan du, eta dirua eskatu

“Etxe prekario batean egon nintzen, baina hotz handia sartzen zen, eta autoan lo egitea erabaki nuen”

“Haurdunaldian, beharrezko elikagai eta ekografiarik barik ibili nintzen, penintsula zeharkatuz”

ere bai. Espainiar estatuan hara eta hona ibili, eta Durangon egokitu da azkenaldian. Logela bat alokatuta eta oinarrizko errentaren laguntzagaz bizirauten du. Etxepeleagaz oreka hartzen dabil berritri. “Beti egon izan naiz muturreko egoeretan. Haurdunaldian, beharrezko elikagai eta ekografiarik barik ibili nintzen, penintsula zeharkatuz”. Esperientzia txarrak eduki ditu, indarkeria jasan du, eta bere buruz beste egiteko zorian egon da. “Etxepelek bizia salbatu dit, dagoeneko ez naiz bakarrik sentitzen”. Amankomunazgoko gizarte zerbitzuetako teknikariren lana eta tratua ere eskertu ditu.

Pentsiorako, dirurik ez

Berritri gizarteratzeko saikeran laguntzea da Etxepelen helburua, Alberto Estefaniak dioenez. 09:30etik 17:00ak arte, gosaria, bazkaria, solasaldiak eta ekintzak egiten dituzte. Osasun arreta eta higiene aukera ere ematen dute. Etxebako bakoitzak tutore bat dauka, prozesu pertsonalean laguntzeko.

Duela urtebete pasatxo zabaldu zenetik, eguneko zentroa da Etxepel, baina, gauerako, pentsio soziala martxan ipini gura dute. “Ez da jenderik ikusten kalean lo egiten, baina beharizan handia dago”. Finantziario faltagatik zabaldu barik dago pentsioa. “Administrazioek diote ez dagoela dirurik. Nik uste dut badagoela, baina beste gauza batzuetara bideratzen dela. Legearen arabera, Aldundiagaz egin beharko genuke elkarlanerako hitzarmena, baina 2016an ere ez digutela lagunduko esan

edozein gera daitekeela uste du. “Muga hori gero eta lausoagoa da”. Horregatik, gizarte osoari begira inbertitu behar dela uste du. Krisiagaz kopuruak handitu dira; Bizkaian 500-600 lagunek egiten dute lo kalean, 3.000 daude eta etxerik barik.

Neguko aterpetxea

Durangaldeko Amankomunazgoak aurten ere Neguko aterpetxea zabaldu du, Tabirako Errota ostatuan gelak alokatuta. Martxora arte, hiru egun ja-

Amankomunazgoak aurten ere neguko aterpetxea zabaldu du, Tabirako Errota ostatuan gelak alokatuta

rraian lo egiteko aukera eskainiko dute. Iaz, 110 lagunek egin zuten lo bertan. Neguko eguraldi hotzaren aurrean, larrialdiko babesa da aterpetxea.

Bestalde, kalean lo nahita egiten dutenaren topikoa gezurtatu du Estefaniak. Dioenez, batzuek ez dute baliagarri ikusten egun batzuetan han-hemengo aterpetxeetara joatea. Azken batean, etxebako guztiek soluzio bat gura dute, etxe bat. “Ez ditugu opariak eskatzen jendearentzat, euren eskubidea da”.

digute”. Caritasen pisu bietan daude nora joan ez dutenak. Momentu honetan, kalean lo egiten duten pertsona bi joaten dira Etxepeleko eguneko zentrorra.

Estefaniak, etxerik barik

Ekoden

HORTZ KLINIKAK
KLINIKAK DENTALES

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean
PROTESI BERRIAREKIN
mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURITASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15%

-rainoko **DESKONTUAK**
WEB GUNEKO TARIFETAN

36 HILABETE ARTEKO FINANTZAKETA INTERESIK GABE*

Kontsultatu gure tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketa larriko. Banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

Zelaietako berrantolaketaren inguruko ika-mika udaletxean

EH Bilduk hala eskatuta, osoko bilkura berezia egin zuten, eguaztenean



412 sinadurek babesturiko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk; Aik eta EAJk kontra bozkatu zuten.

ABADIÑO Itsaso Esteban EH Bilduk hala eskatuta, osoko bilkura berezia egin zuten, eguaztenean, Abadiñon. Zelaieta auzoaren berrantolaketarako parte-hartze prozesuari loturiko hiru eskari hauek jasotzen dituen mozioa

aurkeztu zuen EH Bilduk: prozesu hori hirigintza eta parte-hartze arloko adituek gidatzea; herritarren ideietan oinarrituta, teknikariak proposamen desberdinak garatzea; herritarrek proposamen horien artean aukeratu ahal

izatea. Hain zuzen ere, hiru puntu horiek dira EH Bilduk asteotan burutu duen sinadura-bilketan aldarrikatu dituztenak, eta 412 herritarren babes jaso dutenak.

Eguazteneko udal bilkuran, EH Bilduren mozioaren, eta be-

raz, hiru eskari horien kontra bozkatu zuten Abadiñoko Independenteek eta EAJk.

Mikel Urrutiak esan zuen EH Bilduk eskatuta hasi zela, duela bi urte, Zelaietako hirigintza berrantolatzeko parte-hartze prozesua, baina prozesu horren bigarren fasean gobernuak albo batera utzi duela parte-hartzea.

“Herritarren eskariak ezagutzeko, teknikariak bideraturiko parte-hartze prozesu bat garatu behar genuela ados egon ginen, eta horrela egin genuen”, erantzun zion alkateak. “Aurkeztu dugun proiektuak herritarren eta udaleko hiru alderdien ekarpenak jasotzen ditu”.

Udalak aurkezturiko proiektuari alegazioak egiteko hila-beteko epea eduki dutela herritarrek azpimarratu zuen alkateak. Azaldu zuen, Iturritxo kaleko hainbat auzotarrek, esaterako, euren kezka agertu dutela, proiektua dagoen bezala gauzatu ezker, Txanportatik igaroko ez litzatekeen trafikoa euren kaletik igaroko litzatekeelako. Alkateak esan zuen, auzotar horiekin bezala, abadiñar gehienek babesagaz baino ez duela Zelaietaren berrantolaketarako proiektuak aurrera egingo.

SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
EH Bildu



Kea saltzen

Klima aldaketaren aurkako borrokan erreferentzia hartzen dabil Durango. Horrela hasten zen aurreko astean astekari honek argitaratutako elkarriketa bat. Klima aldaketari aurre egiteagatik sari bat jaso du udalak. Askotan aipatzen da Durango gai honekin lotuta: EAEn klima aldaketaren inguruko ordenantza bat onartzen lehen Udala izan zen (2009ko urtarrilean osoko bilkurak onartua). Ordenantza horrek zeukan atal lotesle bakarria klima aldaketa borrokatzeko udal programa zen, ordenantza onartu eta 12 hilabetera egin behar zena. 12 hilabete pasa ziren, baina 38 ere, programa onartu baino lehen. Azkenean, 2012ko martxoan onartu zen, 2010-2015 klima aldaketa borrokatzeko udal programa. Ez naiz datekin nahastu, 2010. urtean hasi behar zen udal programa, 2012. urtean onartu zen. 2015. urtea heldu da, plan horren balorazioa egiteko unea. Udalak egingo duen ebaluazio txostenean, agindutako neurrien %60 bete dela esaten du. Oso balorazio baikorra da, neurri guztien ezarpen maila aztertuta, erdia ere ez baita bere osotasunean bete, baina tira, hori nire iritzia da. Baina, nire iritziaz gain, badago datu objektibo bat: zein zen programa horretako neurri izarra, hain zuzen ere, energia berriztagarrietan inbertitzeko 600.000€. Planaren azken urtea bete denean, 600.000€ horietatik 0€ gastatu dira. Bai, sari bat emateko modukoa da, alegia. Tira, datu hauek guztiak, elkarriketa horretan kateariak eta elkarriketatuek ez zituzten aipatzen. Pentsa gura dut, lehenak ez zekiela, eta bigarrenak ez zituela gogora ekarri. Edozein kasutan, klima aldaketaren borrokan ez da zuzena, Parisen egin duten bezala, kea saltzea, ezta ke hori hauspotzea ere.

Astinddu aisialdi elkarteak sortu dute, eta hainbat ikastaro antolatu dituzte

Askotariko gaien inguruko ikastaroak antolatu dituzte datorren urterako

ABADIÑO I. E. Abenduaren 29ra arte eman daiteke izena Gaztetxean sortu-

tako Astinddu aisialdi taldeak antolatu dituen ikastaroetan parte hartzeko. Gaztetxean zein

abagaztetxie@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke izena. *Etxeko txapuzak*, ortugintza, argazkigintza, sukaldaritza beganoa, kakorratza, soinu tekniaritza, photoshop, eta Tai ji quan arte martzialak ikasteko aukera eskainiko dute, adibidez. Abadiñoko eta inguruko herrietako irakasleek gidatuko dituzte ikastaro horien saioak.

Taldekideek azaldu dutenez, “autogestioaren ideia aisialdian ere aplikatzea” dute helburu: “Guk sorturiko ekimenen bitartez ez bada, Abadiñon ez dago aukera askorik herritarren arteko harremanak estutzeko”.



Astinddu aisialdi taldeko kideetako batzuk.

Burger King-en udal lizentzia ontzat eman dute epaitegiek

ABADIÑO Jone Guenetxea Abadiñoko Udalak jakitera eman duenez, Administrazioarekiko auzien Bilboko 3. Epaitegiak ezetsi egin du Bizkaidendak-Bizkaiko Merkataritza eta Ostalarien Elkarteak udal horren kontra Burger King hanburgesategi kateari emandako obra eta jardueraren lizentziengatik jarri zuen errekurtsioa. Abadiñon Burger King kateko saltoki bat zabaltzeko lizentziak Lurralde Plan Sektorialak finkatutako gehienezko azalera komertzialaren muga hautsi zuela iritziar, Bizkaidendak epaitegiatar jo zuen duela urtebete.

ALBERDI

HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA

ETXEKO TXORIZO
ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE
ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN
MUNDUKO TXAPELKETAKO
IRABAZLEA

2014 ELORRIKO
BUZKANTZA JAIKO
ODOLOSTE ONENA

ABENDUKO SARIAK



HITZ LIBURU-DENDA. LIBURUA ETA DVDA
Patrick Modianoaren "Udaberri alua"
liburua eta "Ice Age 3: dinosaurioen
egunsentia" DVDA.



GOIATZ MURUA ETA AINHOA ELORZA
PODOLOGIA KLINIKA. KIROPEDIA KONTSULTA
Oinen tratamendurako kontsulta bat:
gogorguneak, azazkaletako arazoak...



SALTSAN KATERIN. EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa,
2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo,
2 ardorekin lagunduta.



LAPIKO JATETXEA. MENUAK
2 pertsonentzako menu berezia
igande eguerdirako.



SAN AGUSTIN. TXARTELAK
San Agustin bazkide txartel bat
eta San Agustin txikitxartela.



ABANTAILAK

- > Deskontuak Durangaldeko zein eskualdez kanpoko hainbat saltokitan.
- > Deskontuak Anboton argitaratzen diren iragarki labor ordainduetan eta eskeletan.
- > Hilero egingo diren zozketetan parte hartzea.
- > Durangaldeko egutegia eta turismo-gida opari.

anboto 
komunikabideak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org

 @anboto

 Anboto
Komunikabideak

Tel.: 946 816 558

Zirilo Arzubiaga kaleko lanak amaitu dituzte

Gainaldeko berrantolaketa oinezkoen erosotasuna izan dute helburu; azpiegiturak ere berriitu dituzte



Zirilo Arzubiaga kaleari "zabaltasuna" eman diotela azpimarratu dute.

ZORNOTZA J.D

Herriko kaleak oinezkoen lehen-tasuna emanda berrantolatzeko prozesuan, urrats berri bat eman du udalak. Zirilo Arzubiaga kalearen itxura berrantolatu dute gainaldean, eta azpiegiturak berriitu eta egokitu dituzte lur azpian.

Lanek 120.000 euroko inbertsioa izan dute, eta hile bi inguruan amaitu dituzte, aurreikusitako epearen aurretik. "Oinezkoentzat pentsatuta" egon den proiektuak "zabaltasuna" eman dio kaleari, eta, estetikoki, "aldaketa handia" nabari da Andoni Agirrebeitia alkateak nabarmendu duenez. Gainaldeko zoladura aldatu dute, eta kaleko osa-

gaiak (bankuak, zuhaitzak, zakarrontziak...) oinezkoen eta inguruko saltokien erosotasuna oinarri zuten irizpide estetikoari begira berrantolatu dituzte. Aulkiak eta zakarrontziak lehengoak dira.

Edozelan ere, lur azpiko azpiegiturretan egindako lanak izan dira nekezanak. Esaterako, oraindik erabat desaktibatatu barik zegoen putzu septikoak (45 metro luze eta hiru metro zabal ditu) garbitu eta itxi egin dute, eta euri uren eta fekalen hoditeriak berriitu dituzte. "Gune txikian instalazio asko zeuden, eta dena antolatzeak lan handia eskatu du", onartu dute lanak burutu dituen enpresako ordezkariak.

Hamaika eta hamalau urte artekoentzako bertso eskola

ZALDIBAR I.E.

Datorren urtean, urtarrila eta ekaina artean burutuko dituzten bertso eskolako saioetan parte hartzeko izen-ematea zabaldu du Zaldibarko Udalak. Hamaika eta hamalau urte arteko bertsozaleei zuzenduriko ikastaroa da, eta urtarrilaren 8ra arte egongo da izena emateko aukera, liburutegian.

Aurtengo lehenengo lau hilera, gazteen talde bat eta helduen beste bat osatu dituzte bertsozaleen inguruan jarduteko; dozena bat lagun inguru ibili dira talde horietako bakoitzean. Irailean, ikasturte berriagaz ere zabaldu zuten izen-emateko deia, baina ez zuen jende nahikoak izena eman, eta ez zen ekimena berriro martxan ipini.

Harriak mugitzeko deia egingo zaie herritarrei, abenduaren 26an

IURRETA A.B.

'Mugi daitezen harriak!' ekimenagaz bat egitera deitu dute Iurretan, abenduaren 26an. Euskal preso eta iheslarien

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko urteroko aldarria urtarrilaren 9an egingo dute, 17:00etan

eskubideen aldeko urteroko aldarria urtarrilaren 9an egingo dute, 17:00etan. Bilbon eta Baionan bi mobilizazio egingo dituzte, egun eta ordu berean.

Deialdi horrekin bat egiteko hitzordua lotu dute, hilaren 26an, 12:00etan, Iurretako probalekuan.

Bazter-babesak ipiniko dituzte errepide bitan

GARAI M.O.

Udalak bazter-babesak ipiniko ditu errepide bitan, trafikoa- ren segurtasuna hobetzeko helburuagaz. Hain zuzen ere, Barrainkutik Iurretarako bidean eta Santa Katalinatik Larrinagara bidean egokituko dituzte babesak. Lehen zatian, 4.300 euro erabiliko dituzte, eta bigarrean, 4.570.

Eremu horietan, troka handiak daude, eta arriskua gutxitzeko hartuko dituzte neurriak. Obrak laster hasia espero dute.

Euskara Berrizko dendetan sustatzen

BERRIZ A.U.

Berrizko merkatariek eta udalak euskara sustatzeko hitzarmena dute. Akordio hori gogoratzeko, urtero zer edo zer berria egiten du Euskara Sailak. Oraingoan, dendetan 'Zabalik' eta 'Itxita' dioten kartelak banatu dituzte, herriko alor guztietara zabaltzen dabiltzan *Euskaraz nahiago* leloagaz. Udalak aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eskaintzen die denda, taberna, jatetxe eta enpresa txikiei; errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntza ere bai.

Zerbitzuen kudeaketa "eraginkorra" lortzeko lanean

IURRETA A.B.

Herritarrei zuzendutako zerbitzuetan kudeaketa "eraginkorra" eta "kalitatezkoa" lortu gura du Iurretako Udalak, eta, horretarako, EUDELe eta HAEEk antolatutako administrazio izapideen eskuliburuak egiteko trebakuntza eta laguntza programan parte hartuko du. Udal kudeaketa "gardentasuna gehituko" du horrek, eta herritarren osoko arreta zerbitzu bat antolatzeko —Herritarren Arreta Zerbitzua delakoa— prozesua abiatzeko bidea zabalduko du.

Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "aurrerapauso garrantzitsua da. Edozein izapide erraztu eta arindu genezake". Lan talde bat sortu da prozedura guztia bideratzeko.

Errotaritxuena DURANGO

Errotaritxuenaren arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdeguniak eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU

www.solvias.com Sabadell/Guipeuzoano 

946 46 20 41 
www.sukia.com 

 **sukia** Zure etxean zaude
Estás en tu casa

clayoeneko %80 baina gehiago saldira

azken aukerak ez galdu

**HAUTESKUNDEAK**

Aurten, udal hauteskundeetarako ere eman dute botoa herritarrek. Elorrio

Bizkaiko ordezkariak, Madrilen aulkia lortu guran

Espainiako gorteetarako hauteskundeak egingo dira, domekan

DURANGALDEA Anboto Domekan egingo dira Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak. Aurten, herritarrak bigarren daude deituta botoa emateko, izan ere, maiatzean udal eta foru hauteskundeak izan ziren.

Oraingo hauteskundeotan, Bizkaitik, Kongresurako zortzi diputatu aukeratuko dira, eta Senaturako lau. Duela lau urte, EAJ izan zen boto eta ordezkari gehien lortu zuena herrialde

mailan. Inkestek ere hori iragarri dute, domekarako.

Bestalde, PP eta PSOEren arteko indar banaketa asko zabalduko da, Podemos eta Ciudadanosen mesedetan; ikusteko dago zelan osatuko den gobernu, eta nor izango den presidente.

ANBOTOren jarraipena Domekan, ANBOTOk boto zenbaketen jarraipen zuzena egingo du, www.anboto.org webgunean.

Ortuzar: “Domekan, Euskadi da jokoan dagoena”

EAJk ekitaldia burutu du, Zornotzan, Ortuzar eta Estebanegaz



EAJko Ortuzar eta Esteban, Zornotzan, beste hainbat alderdikidegaz batera.

> EAJ

Andoni Ortuzar EAJko presidentea eta Aitor Esteban Bizkaiko zerrendaburua egon ziren Zornotzan, joan zen barikuan, jeltzaleek egin zuten ekitaldian. Ortuzarren iritziz, beste alderdi politikoek “hauteskundeek gurekin zerikusirik izango ez balute bezala” jokatzeko dute kanpainan zehar, eta horregatik, “estralurtar gisa” sentitu izan direla azaldu zuen Zornotzako mitinean. Baina, horren aurrean, hauteskundearen balioa nabarmendu zuen: “Euskadi da jokoan dagoena. EAJ, hemendik eta

domekara arte falta diren egunetan, kalera irtengo da hauteskunde hauek jokoan dagoenak zuzen-zuzenean eragingo digula esateko”.

Hiritargo osoa deitu gura izan zuen, botoa “Madriletik datozen murrizketa eta erabakietatik libratuko gaituen babes gisa” erabiltzera.

Aitor Estebanek estatutua betetzea exijitu zuen bere mintzaldian, eta, gainera, Gizarte Segurantzako erregimenaren transferentzia egitea eskatu zuen, Madrileko gobernutik autonomia erkidegokora.

Bakerako Euskal Bidearen testuinguruan, berbaldia

Ane Muguruza, Julen Arzuaga eta Jon Iñarritu, hitzaldian



Hizkuntza Eskolan eman zuten berbaldia.

> EH BILDU

EH Bilduk berbaldia antolatu du, eguaztenean, 19:00etan, Durangoko Hizkuntza Eskolan. *Bakerako Euskal Bidea. Memoria eta aitortza* testuinguan berba egin zuten Durangora gonbidatutako hiru hizlariak. Ane Muguruza, Josu Muguruza zenaren alaba, Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkidea eta Jon Iñarritu Kongresurako hautagaia.

Julen Arzuaga legebiltzarkideak azaldu duenez, “momentu honetan, indarkeria ezberdinen inguruko errelatoaren lehia batean gaude. Guk egia osoa ezagutu gura dugu”. EAeko instituzioetatik egiten den memoria “partziala” dela gaineratu zuen. “Memoriaren mapa askoz zabalagoa da”. Memoria inklusibo eta integrala lantzearen garrantziaz jardun zuen EH Bilduko legebiltzarkideak.

Rodriguez: “Herritarren %80k aldaketa gura du”

Tontxu Rodriguez hautagai sozialista Durangon egon da



PSE-EEko kideak, Durangon, arrosak banatzen.

> PSE-EE

Durangoko kaleetan zehar arrosak banatzen ibili ziren, atzo, PSE-EEko kideak. Euren artean, Tontxu Rodriguez eta Idoia Agorria Senaturako hautagaiak egon ziren, eta Gobernuaren aldaketa emateko beharra aldarrikatu zuen Rodriguezek. Deustobarometroko datuak aipatuta, Espainian bezala, Euskal Herrian ere aldaketa gogoia dagoela esan zuen: “Euskal Herritarren

%80k aldaketa gura du”. Bere ustez, “alderdi sozialista da aldaketa bermatu dezakeen alderdi bakarra”. PPren gestioa kritikatu du: “PPk egindako kalte guztia, berdintasun eta gardentasun falta, atzean uzteko garaia da”.

Sanchezen aurkako kanpaina salatu du: “Kanpaina gogorra eta gaitza izan da alderdi sozialistarentzat, denak Pedro Sanchezen kontra lerrokatu direlako, eskumaren aurka beharrean”.

A20 EAJ**GOIZTIDI DIAZ****Euskadi, ekinez egina**

Lehenik Euskadi! EAJrentzat beti Euskadi. Azkenak orain dela 6 hilabete egin ostean, berriro hauteskundeetan murgilduta gaude. Igandean, Kongresu eta Senaturako ordezkariak hautatuko ditugu. Ez da edonolako erronka, ezinbestekoa da Euskadik ordezkariak sendoa izatea Madrilen.

EAJk beti tinko eutsi dio bere konpromisoari, Euskadiren aldeko interesen bermeari. Zuen konfiantzari esker, lehen indar politikoa izan ginen maiatzeko hauteskundeetan. Zuen konfiantzari esker, lanean ekin diogu Durangoren alde, eta halan egingo dugu Euskadiren alde. Horregatik, zure bozka, zure konfiantza behar dugu, Madrilen ere Euskadiren interesak bermatzeko.

EAJrena proiektu serio eta zintzoa da. Gure aberriaren alde lan egiteko hitza eta konpromisoa hartzen dugu, eta, horretarako, prest ditugu gure hautagaiak. Aitor Esteban zerrendaburuarekin batera, Pilar Ardanza durangarra, besteak beste, Durangoren alde lan egin eta gero, Euskadiren alde lanean ekiteko konpromiso zintzoa dutenak.

Beharrezkoa da burubelarri lan egitea euskaldunon eskubideak eta Euskadiren eskumenak bermatzeko. Ezinbestekoa da kontzertu ekonomikoa eta gure aldundiak tinko mantentzea, beharrezkoa Euskadiren autogobernua areagotzea. Horregatik, garrantzitsua da bozka ematea, Euskadiren aldeko helburu eta erronkak aurrera eramateko gaitasuna izango duenaren gain konfiantza ezarri eta bozka ematea. Eta horixe da EAJ, gaitasuna, zintzotasuna, lana, konfiantza eta seriotasuna. Eman bozka EAJri!

A20 EH Bildu**ION ANDONI DEL AMO CASTRO****Eraldatu, bozkatu**

Hauteskunde hauek ez dira inportanteak, sinestarazi nahi digu Marianok. Horregatik jarri ditu abenduaren 20an. Ez dira gure hauteskundeak, baina gauza asko ari dira gertatzen. Katalunian tinko dabilta independentziarako bidean. Espainian bertan ere, mobilizazioak bizi dituzte. 1978ko erregimena kartzela izan da Estatuko herrirentzat, baina baita Espainiako klase popularrentzat ere. Ezkerreko independentistok beti esan dugu, eta denborak arrazoiak eman digu; bere izaera oligarkikoa inoiz baino agerikoa da. Debatea zabaldu da, sakoneko eztabaida bat egiteko edo tapoia ezartzeko. Ematen du tapoiaren taktika nagusituko dela Madrilen. Baina, hori dela eta, ezkerreko independentistok han egon beharra dauka: haustura demokratikoa aldarrikatzeko, eta iruzur berriak salatzen. Ez dago batere argi beste indar batzuk, abertzaleak barne, erregimeneko indarrek tapoia diseinatzen sartuko ez direnik. Hala ere, Madrilekoa ez da inportanteena. Euskal Herrian badago erregimenari kolpe bat emateko aukera. Irabazi genion Nafarroan, eta oraingoan ere erregimeneko partiduak ezertan uzteko aukera dago. Eta horrek fase politiko berri bat ireki dezake Euskal Herrian, aliantza berriak ahalbideratuko duena. Erabakitzeko eskubidea, austeritatearen kontrako politikak, giza eskubideak eta haustura demokratikoa uztartzeko fasea. Ez egin kasurik Marianori eta etsipenaren strategiari. Gure ahotsak, gure herri antolaketak, eta gure botoek ere, inposatzaileen ahuldadea dakarte. Eta, horretako, Euskal Herrian, EH Bildu da bermerik sendoena, fidagarriena, gauza bera esan eta garatuko baitu orain, San Tomas egunean, eta hurrengoetan.

A20 SQ-2D**JULIAN RIOS****Ez ahaztu, eta egin irribarre**

Abenduaren 20a aldaketarako aukera da, Euskal Herriarentzako aukera. Podemos Ahal Dugu talde politiko bakarra da milaka boto eta dozenaka eserleku euskaldunon esku jarri ditzakeena gure interesak defendatzeko, batez ere erabakitze eskubidea. Gure langileak eta autonomoak ere babestuko ditugu, Enplegu Iraunkorren aldeko planen bitartez, "plan ez kutsakorrek eta aingurata ez daudenak, hain zuzen. Horrelakoak jasotzen ditu, besteak beste, Podemos Ahal Dugu-ren trantsizio energetikoaren planak. Bi zeregin eskatu nahi dizkizuet:

Ez ahaztea da lehena: ez ahaztu "black txartelak", ez ahaztu etxegabetzeak, ez ahaztu "De Miguel kasua", "Hiriko kasua", "Epsilon kasua", ez ahaztu Púnica, ez ahaztu Gürtel, ez ahaztu "Luis, gogor egin", ez ahaztu Andaluziako EEEak, ez ahaztu lehentasuneko akzioen iruzurra, ez ahaztu Osakidetza ilarak, ez ahaztu Hezkuntzaren murrizketak, ez ahaztu 135a, ez ahaztu lan erreforma. Bigarrenik, irribarre egiteko eskatzen dizuet:

Egin irribarre M15ari, egin irribarre enparantzei, egin irribarre etxegabetzeak eragozten dituzten auzotarrei, egin irribarre Ada Colauri, egin irribarre langile autonomoiei eta enpresa txikietako buruei, egin irribarre lanera joateko goizaldeko seietan jaikitzen direnei, egin irribarre lanik gabe goizaldeko seietan jaikitzen direnei, egin irribarre hamabost orduko lanaldia duten amei, egin irribarre pentsioa luzatzeko ahaleginetan dabiltaiz aitita-amamei, egin irribarre, egin irribarre, egin ahal da eta. A20an, eman botoa Podemos Ahal Dugu taldeari

Erredakzioan itzulia*A20 PSE-EE****IDOIA AGORRIA****Inork ez dezala botoa oparitu**

Sozialistek altxatu zuten osasun unibertsaleko sistema publikoa. Sozialistek jaso zuten guztiontzat den Hezkuntza. Pentsioen sistema publikoa. Mendekotasunerako laguntza. Azken batean, sozialistek bilakatu gintuzten europar. Sendotu zituzten eskubideak eta askatasunak. Bidea eman zuten aukerak eta aurrerapeña guztiontzat ekarriko zituen herrialdea eraikitzeko.

Bai. Gobernu sozialistek eraiki dute ongizatearen gizartea gure herrialdean, milioika lagun laguntzaz eta lanaz. Ez, ez gara alderdi zahar bat; historia duen alderdi bat gara. 135 urte borrokan eta lanean, askotan zuzen, eta, bestetan, makur. Gazte zein heldu, gizon zein emakume, denak alderdian bat eginik, desberdintasuna eta bidegabekeria deuseztatzeko helburuarekin.

Benetako aukera bakarra gara PPren eskuinari eta Ciudadanosen eskuin "berriari" aurre egiteko. Ciudadanosen programak koska bat estuago egiten baitie Rajoyren murrizketei, ekonomian, gizartean eta genero aldetik dagoen desberdintasuna areagotzen duten proposamenekin. Eskuin beraren bi aldeak dira. Benetako aukera bakarra gara, garbier alderdi "berriari", eskuak sekula zikindu ez dutenei aurre egiteko. Horiek ezinezko promesak egiten baitituzte, eta, gustuko ez badituzu, aldatu egiten dituzte, beste batzuekin ordezkaturak. Ziurrena, Ahal Dugu izango da gobernura iritsi gabe programa hiru aldiz aldatu duen historiako alderdi bakarra.

Eta zera eskatu nahi dizuet: herritarren duintasunaren eta berdintasunaren alde borrokatzeko. Inork ez diezaiela botoa oparitu eskuine.

A20 PP**FRAN GARATE****Boto bakarra daukazu**

Legala da hauteskunde kanpainan botoa eskatzea. Baina, modu egoki eta dotorean egin behar da hori. ANBOTOk aukera ematen digu zuengana zuzentzeko eta gure lorpenak kontatzeko -PPren kasuan ondo gobernatzen ari garela kontatzeko-. Baita gure asmoak eta gure programak zuenganatzeko, eta zuen botoa eskatzeko ere. Zer gertatzen da norbaitek eskatu badizu, dagoeneko? Besteok agertu gara, baina, boto bakarra daukazunez, ezin dituzu denak pozik utzi. Zer egin? Eskatu dizun lehenengoari eman? Ba, ez da bidezkoa. Itxura batean, lehenengo eska dezakeenaren eskubidea gainerakoena baino hobea da. Baina, horren alde positiboa ikusten saiatu, eta zuekin partekatuko dut. Laburesanda:

1. EAJk aurreko asteko ANBOTON eskatu zizuenez botoa, orain besteok dugu zuengana zuzentzeko aukera.

2. Herritarrok ez gara ergelak, eta botoa nori eman erabakitzen dugunean, ez diogu kasurik egiten nori eskatu digun lehenbizi. Egindako lanari erreparatu diogu, eta ondo egiteko gaitasunari. Badakigu, ondo gobernatzen duenarekin, beste lau urte ezin hobeak izango ditugula aurretik, eta horretan, eredu gara Europarentzat eta mundu osoarentzat.

Diaz andreak botoa horrela eskatu izanak poztu egin nau, ez diolako abantailarik ematen nire eskaerarekiko, eta aukera ematen didalako zuengana zuzentzeko eta zuei PPren aldeko botoa eskatzeko. Eta modu egoki eta dotorean egiten dizuet eskaera, abantailarik bilatu gabe. Gobernuan egindako lau urteetako emaitzak oinarri hartuta eskatzen dizuet botoa, denok ezagutzen ditugun emaitzak oinarri hartuta, hain zuzen ere.

Erredakzioan itzulia*SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK****SCHMIDT**

Muruetako auzoa, z/g - 17B lokala · Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO · Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

PSIKOLOGIA

PEDAGOGIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63

PODOLOGIA

ESTETIKA

OPTIKA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

GOIATZ MURUA
PODOLOGOA

AINHOA ELORZA
PODOLOGOA

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09

keinu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

RPS: 162/13

ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**
ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hartz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Alkateak AHTaren aktak sinatu barik joan dira Gobernuako delegatuak

Hurrengo deialdia Bilboko delegaritzan egingo dute, 2016 hasieran



AHT Gelditu Elkarlanak deituta, elkarretaratzea egin zuten, atzo, udaletxearen aurrean.

ATXONDO J.D.

Aurten esleitu dute AHTaren Atxondo-Abadiño tartea, eta oraindik, lur zati horietako desjabetzak egin barik daude. Atxondoko 40 bat lurjabe martitzenean zeuden aktak sinatzera deituta, baina ez ziren agertu. Izan ere, iragarri moduan, David Cobos alkateak ez zituen aktak sinatu, eta Gobernuako delegatuek akordio barik joan behar izan zuten.

Bitartean, AHT Gelditu Elkarlanak deituta, elkarretaratzea egin zuten udaletxe parean.

AHT proiektuaren aurka egoteaz gainera, desjabetzen kontua aurrera eramaterako orduan eman diren “irregulartasunengatik” erabaki du alkateak ez sinatzea. Izan ere, desjabetzeen eraginpean dauden hainbat herritarrek –udalak tartean— sartutako alegazioek ez dute erantzunik jaso:

“Alegazioak erantzun barik aktak sinatzera etortzeak babesgabetasun egoeran uzten ditu bai lurjabeak bai udala”.

Horrela, Cobosk udalak sartutako alegazioen idatzia eman zien Gobernuako delegatuei martitzenean, eurekin batzartu zenean. Delegatuek jakinarazi ziotenez, hurrengo deialdia Gobernuak Bilbon duen delegaritzan egingo dute 2016ko urtarril edo otsailean.

Argiteriaren “arazo larriari” aurre egiteko inbertsioa

ATXONDO J.D.

Aurten, 60.000 euro inbertitu ditu udalak argiteria publikoa berritzatzeko, baina hala ere, “hainbat bide, auzo eta kaletan farola ugari argi barik daude”, jakinarazi dutenez. Beraz, aurten, “gutxienez 20.000-30.000 euroko” diru atala sartuko dute aurrekontuetan berritzatzeko lanekin jarraitzeko.

Arazolan, Axpen eta Apatan “arazo larriak” daude argiteria publikoarekin, udaletik prentsa ohar batean jakinarazi dutenez: “Azken hilabeteetan hainbat bide, auzo eta kaletan farola ugari argi barik daude”. Arazoa, neurri handi batean, “azpiegituren egoera tamalgariaren ondorio da”. 30 eta 40 urte inguru dira herrian argiteria publikoa hedatu zenetik eta, leku askotan, orduko koadro, kable eta farolak daude oraindik: “Kable asko haizeak botatzen dituen adarrek kaltetuta daude, eguzkiak janda, euriak ustelduta, koadro ugari oinez tuen eraginez salto egiten dute...”

Elurteei aurre egiteko boluntario bila dabil udala

OTXANDIO J.D.

Astelehenean hasiko da negua, eta Otxandion beste herri batzuetan baino ohikoagoa da elurra egitea. Udalaren garbiketa lanetarako giza-baliabideak mugatuak dira herrian, eta denboralea gogorra denean, lanak gainezka egiten du. Ho-

Udalaren garbiketarako giza-baliabideak mugatuak dira, eta boluntario talde bat eratu gura dute

rregatik, herritarren laguntza gura du udalak. Deialdia ireki dute, herrian sortu nahi duten boluntario taldean parte hartu gura duenarentzat. Udal bulegora joanda edo udaletxera deituta (94 545 00 20) eman dezakete izena. Baita e-mail honetara idatzita ere: zerbitzuak@otxandio.net. Whastapp bidez ere jakinarazi daiteke interesa: 648 265 246.

Kainaberaren jaialdian batutako dirua Bogotara bideratuko dute

ELORRIO J.G.

Kainaberak jaialdia antolatuko du, bihar, 17:00etan, Arriolan. Ekitaldian, Elorrioko ikastetxe, musikari eta dantza taldeek parte hartuko dute. Sarrerarekin batutako dirua Bogotan elkarrekin babesten duen jantoki komunitarioen proiektura bideratuko dute. Jantokietan 250 pertsonari eskaintzen diete zerbitzua, eta oinarritzko elikadura bermatzeaz gain, inguruko familiei formazio saioak ere ematen zaizkie.

Ur-gordailuak banatu dituzte, Tindufen

ELORRIO M.O.

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamenduetara bidaiatu dute Elorrioko Lajawd elkarreko eta Txintxirri ikastolako



16 elorriarrek bidaiatu dute saharaviar kanpamenduetara.

ikasle eta irakasleek. Ur-gordailuak banatzeaz gainera, elorriarren diru-laguntzagaz zabaldu-tako museoa inauguratu dute.

Durangoko Hamadako Izarrak elkarteko kideek ere Tindufera bidaiatu dute. Udan elkarrekin ume saharauientzako udalekuak antolatzen ditu. Uholdeen ostean umeak bisitatu gura izan dituzte.

Fytasako sarrerak itxi ditu udalak, istripuak saihesteko

ELORRIO M.O.

96 urteko jardunaren ostean, 2011n ateak itxi zituen Fytasa galdategiak. Orduetik, abandonatuta egon da, eta bertara sartzeari erraza zen. Udalak azaldu du umeak eta txatar-biltzaileak sartu izan direla bertara, eta hori saihestu guran, lursailaren jabeari neurriak hartzeko eskaera egin diote. Baina, erantzunik jaso barik, udalak hartu du bere gain eraikina ixteko ardura. Sarrera nagusian metalezko ate bat ipini du, eta leiho hautsiak tapatu egin ditu. “Guk geuk hartu behar izan ditugu

neurriak, bagenekielako egun batetik bestera ezbeharren bat gertatu zitekeela”, esan du Idoia Buruaga alkateak. Aurreko legealdian ere gaiarekiko kezka mahaigaineratu zuen EH Bilduk. EAJ zegoen gobernuan orduan, eta jabeari neurriak hartzea eskatu ziola esan zuen.

Sarrera nagusian metalezko ate bat ipini du udalak, eta leiho hautsiak tapatu egin ditu



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!





Eguaztenezan banatu ziren Durangon ipuin laburren lehiaketako sariak.

400 ipuin laburretatik hiru onenak saritu dituzte, Plateruenean

Joxe Rojas, Jon Ander Urkiaga eta Ander Azpitarte dira aurtengo irabazleak

DURANGALDEA

Berbaro Taldeak antolatu duen Ipuin Laburren II. Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egin zuten eguaztenezan, Plateruena Kafe Antzokian. Guztira, 400 bat ipuin labur jaso dituztela azaldu zuten antzolatzaileek ekitaldiaren hasieran. Durangaldeko hiru sortzailek osatu dute aurtengo epaimahaia: Irati Eguren ilustratzaileak, Arkaitz Callado 'Itsua' musikariak eta Lehiar Elorriaga argazkilariak.

Hirurek lan bikoitza izan dute. Bakoitzak maila bateko irabazlea aukeratu du, eta ipuin labur irabazlea abiapuntu hartuta, sormen lan bat egin du, irabazleari sari moduan emateko.

Egurenak aukeratu du twitter bidezko ipuin laburrik onena. Umoreari garrantzia eman diola onartu zuen: "Gira bihotzak!" idatzi zuen *optimistenak*. *Eta oraindik ez dakite dislexikoa ala xiberutarra den*. Joxe Rojasek da ipuina, eta, iaz ere, berak

irabazi zuen twitter bidezko ipuinik onenaren saria. 17 urteko gorako Durangaldeko ipuin laburrik onena hautatzea 'Itsua' -ren ardura izan da. Hauxe da irabazlea: *Arima zebatean saltzen duzun jakin nahiko nuke; ez erosi nahi dudalako, ezpada nirea merkeago saltzeko*. Jon Ander Urkiaga zornotzarrak jaso zuen saria. Calladok beren beregi ipuin labur hori oinarri hartuta sortutako abestia entzun ostean, Urkiagak berba

batzuk esan zituen. "Mikroherri bat da gurea", esanez hasi zuen hitzaldia: "Eta, jakina, Nobel saridunik ez, mikroipuinekin poz-pozik bizi den hizkuntza batentzat". Baina badugu abantaila bat: "Makroilusioa da gurea, kiloka ere pisatu ezin den bizinahia, eta horren adibide da Berbaro Taldeko mikrokosmosa".

Hirugarren saria eskualdeko 14-16 urte arteko ipuin labur onenarentzat izan zen. Lehiar Elorriagak irakurri zuen adin tarte horretako ipuin irabazlea: *Gizarte kutsatu eta ustel batean umeak irri egin zuen. Besteen ustez, ez zen errealtateaz jabetu. Haurrak berriz egin zuen barre. Ander Azpitarte gaztea da sortzailea*.

Agenda 21eko partaidetza foroa egingo dute martitzenean

MAÑARIA M.O.

Tokiko Agenda 21eko foro parte-hartzailea burutuko da, Mañarian, datorren martitzenean, hilaren 22an. 19:00etatik aurrera izango da, eta udaletxe-ko pleno aretoan batuko dira. Mañariko Udalak bertaratzeko deialdi berezia egin die herritarrei: "Garrantzi handikoa

Mañariko Udala: "Garrantzi handikoa da herritarrek foroan parte hartzea"

da herritarrek foroan parte hartzea, guztion artean gure udalerraren bizi-kalitate maila hobetzeko aukera paregabea delako".

Hiru zeregin

Tokiko Agenda 21eko arduradunek hiru zeregin ezarri dituzte batzarrerako. Lehenik eta behin, iazko foroan jaso ziren eskaera eta proposamenei emandako erantzunak azalduko dituzte. Bigarrenik, 2015ean zehar udalerrian garatu diren ekintzen eta proiektu iraunkorren berri emango dute. Eta hirugarrenik, datorren urterako herritarren eskaera eta proposamenak batuko dituztela adierazi dute.

DURANGALDEA ASTEON

Orientazio Azokan, ikasleak etorkizunaz hausnartzen

DURANGO > Jesuitak ikastetxeak Orientazio Azoka antolatu zuen atzo, ikasleei goi mailako ikasketen hautaketan laguntzeko helburuagaz. Goizean, tailer praktikoak egin zituzten, eta Euskadiko enpresaburu onenaren saria jaso duen Eduardo Junkerarekin solasaldia izan zuten, gaur egungo lan egoerari buruz. Arratsaldean, hainbat unibertsitateko ordezkarien bisita jaso zuten, euren eskaintzaren berri emateko.

Jostailuak eta janaria batzeko ibilbidea, MasCurvasek, bihar

DURANGO > Motorzaleen MasCurvas taldeak Gabonetan urtero egiten duen ibilbide berezia egingo du bihar, zapatua. Partaideek jostailuak edo janaria eman beharko dute parte hartzeko, eta batutakoa, gero, Gobernu Kanpoko Erakundeei bideratuko diete. 16:00etatik 18:00etara egingo dute ibilbidea, eta gero, txokolata eta bizkotxoak jan, eta otzara bat zozkatuko dute partaideen artean.

Domekan, Merkatu Txikia egingo dute, Elorrioren

ELORRIO > Domeka honetan, abenduak 20, Merkatu Txikia egingo dute, Elorrioren. Azokan askotariko postuak egongo dira: bigarren eskuko gauzak, artisauro-lanak, bildumazaleen objektuak, liburuak... Trukea egin, edo erosteko aukera egongo da. *Murriztu, birtziklatu, berrerrabili* lemagaz egingo dute Merkatu Txikia, eta goiz osoan egingo dira postuak: 10:00etan hasi, eta 15:00ak arte.

IRITZIA

ELSA

Gizakiak etorkizunik ez zeukala eta desagertzea hoberena litzatekeela pentsatzen hasita nengoenean, kasualitatez, Elsa ezagutu nuen. Bi pertsona zahar laguntzen ari zen, atariko eskailerak igotzen. Ezkerreko besoarekin Mariari heltzen zion. 85 urte baino gehiago ditu Mariak. Elsaren eskumako besotik Manuel zihoan, Mariaren adin berekoa. Biei asko kostatu zitzaizkien eskailerak igotzea, eta, horregatik, Elsaren laguntza ezinbestekoa zen. Maria eta Manuel bakarrik bizi ziren, familiak ahaztuta eta laguntza barik, baina Elsa aurkitu dute, bere familia izango balitz moduan laguntzen eta maitatzen dituen pertsona. Elsaren familia Errumanian geratu zen, eta gure herrira etorri da beste familia bat zaintzera. Elsak zaintza eta etxeko lanetan aritzen diren andrazko migratzaileen %37ren moduan, arazoak ditu lan baldintzekin, lanaldiarekin, soldatarekin eta kontratuarekin. Bostetik batek arazoak ditu oinarriko beharrezkoen aurre egiteko: janaria, jantziak,

etxebizitza.. Dirua bidaltzen dute sorterrira etxeko lanetan ari diren migratzaile andrazkoen %55ek. Emakume migratzaileen lautik bat bakarrik eta triste sentitzen da. Beste arazo batzuk ere agertzen dira: lautik batek esan du baztertuta sentitzen dela arrazagatik, erlijioagatik edo migratzaile izateagatik. Bostetik batek familiarengandik bananduta egotea aipatu du arazo gisa. Etxeko lan ordainduetan diharduten langileen %95 emakumeak dira, gaur egun, zoritxarrez, rolak ez dira aldatu. Argi dago, berez, sektorea hobetu egin behar dela, emakume horien lan baldintzak agerikoak egin behar dira, eta etxeko lanak lan duintzat hartzen hasi. Lan duinak ez diren bitartean, ez dira lan baldintzak hobetuko. Beste alde batetik, atzerritarren legea aldatu egin beharko litzateke.

Xabier Gutiérrez. (Zornotza)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodokumentazioa helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.



Lorionak eta urte berri on!



Super
litxarrikeria
mundua
31,95€



Studio
tattoo center
28,95€



6 koloretako Jumbo
errotuladoreak **2,99€**
Spaghetti Master
moldeatzeko orea
eta osagarriak **4,99€**



Sukaldari-buru
txikia
74,95€



EROSKI
zurekin

www.eroski.es

Jarraitu
gabonetako
izarrari



Gabonak 2015-16

ABADIÑO

ABENDUAK 18, barikua
19:30 Musikiariak taldearen Gabonetako kontzertua, Errota Kultur Etxean. Gonbitea beharko da sartzeko, eta gonbiteak eskura daude Errota Kultur Etxean bertan (sarrera bi egongo dira pertsonako, goitik jota).

ABENDUAK 19, zapatua
15:00-20:00 Durangaldeko eskola mailako xake txapelketa. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 22, martitzena
19:00 Gabonetako postal lehiaketaren sari banaketa. Errota Kultur Etxean.

17:00-20:00 Uretako puzgarriak. Udal Igerilekua. Oharra: 8 urtera arteko umeak nagusi batek lagunduta egon behar dute

ABENDUAK 23, eguaztena
17:00 Umeendako zinea. Txanporta Kultur Etxean.

ABENDUAK 24, eguena
 Olenzeroren kalejira
16:30 (Traña plaza)
19:00 (Txanporta plaza)
 Ibilbidea: herri osoa, hasi Traña plazan eta amaitu Txanporta plazan.

ABENDUAK 26, zapatua
19:30 Gabonetako kontzertua: Alize Mendizabal (organoa) eta Celine Victores-Benavente (soprano). San Trokaz elizan.

ABENDUAK 28, 29, 30
11:30-13:30 / 16:00-20:00
 Umeen Gabonetako Jolaslekua. Traña-Matienako frontoian
 Txu-txu tren a joan-etorrian ibiliko da Zelaieta eta Traña-Matien artean.

11:30-13:30 / 16:00-20:00
 Izotz pista probalekua.
 Txu-txu tren a joan-etorrian ibiliko da Zelaieta eta Traña-Matien artean.

ABENDUAK 31, eguena
17:00 Umeendako zinea. Muntzaratzeko lokaletan.

URTARRILAK 2, 3
 Frontenis txapelketa, Traña-Matienako frontoian.

URTARRILAK 2, 3, 4
11:30-13:30 / 16:00-20:00
 Izotz pista probalekua.
 Txu-txu tren a joan-etorrian ibiliko da Zelaieta eta Traña-Matien artean.

URTARRILAK 3, domeka
18:00 Umeendako ikuskizuna: Txarlestrop (Zirika Zirkus) Errota Kultur Etxean. Gonbitea beharko da sartzeko, eta gonbiteak eskura egongo dira abenduaren 21etik aurrera Errota Kultur Etxean (sarrera bi pertsonako, goitik jota).

URTARRILAK 5, astelehena
18:00-20:00 Erregeen desfilea. Herri osoa, hasi Muntzaratzen eta amaitu Traña-Matienan.

URKIOLAKO ERAKUSKETA ARETOA
 Abenduaren 23tik urtarrilaren 10era bitartean, Gabonetako postal txapelketa aurkeztutako lanen erakusketa.

ATXONDO

ABENDUAK 18, barikua
18:00 Herria atondu, Marixurrikekoekin.
18:00 Gaztainerre, herriko plazan.

ABENDUAK 23, asteazkena
17:00 Olenzeroren eta Mari Domingiren harrera eta kalejira. Plazan.

BERRIZ

ABENDUAK 24, eguena
09:30 Olakuetako plazan hitzordua, auzoetara joateko
17:30 Olenzero eta Mari Domingi Ibilbidea: udaletxetik probalekura. Animatu, eta baseritar jantzita etorri.

URTARRILAK 4, astelehena
12:00-13:30 | 14:00-20:00
 Gabonetako haur parkea, Berrizburu kiroldegian.

URTARRILAK 5, martitzena
 Errege magoen desfilea
 Komentutik Olakuetako plazara joango dira. Ondoren, txokolata hartzeko aukera egongo da.

DURANGO

ABENDUAK 18, barikua
19:00 Urte amaierako kontzertua B. Ertzilla Musika Eskolako ikasleek. San Agustin Kultur Gunean.

19:00 Helduentzako ipuin kontaketa "Bidaiek ez dute bueltarik". Itziar Rekalde. Udal Bibliotekan.

ABENDUAK 19, zapatua
10:00-20:30 Merkatu txikia eta bidezko merkataritza. Andra Mariko elizpean.
19:00-19:45 Meza
 Andra Mariko elizpea eta Basilika.
10:00 - 13:00 Zunbathon solidarioa. JAED elkartearen aldeko sarrera: kilo bat janari orduko. Landako Kiroldegian.
12:00 eta **12:30** Haurrentzako ipuin kontaketa
 "Ipuinekin dantzan". Lur Korta.
 12:00 3-5 urte / 12:30 + 6 urte.
 Udal Bibliotekan.
17:00-18:30 Haur tailerrak eta jolasak, txokolatada eta kafe solidarioa. Andra Mariko elizpean.
18:00 XVII Gabon kanten emanaldia. San Agustin Kultur Gunean.
20:15 Organo kontzertua: Jesús Martín Moro / Arandoño Elkartea. San Frantzisko elizan.

ABENDUAK 20, domeka
11:30 XLVIII Gabon kanten haur eta gazte jaialdia Landako Gunean.

12:00-14:00 Gabonetako kalejira.
13:00 Gabon kontzertua: Txistua, haria, metalak eta abeslariak. Jaizale Durangaldeko Txistulariak eta Done Zezili Abesbatza Jesuiten elizan.
18:00 Haurrentzako antzerkia: "Moby Dick". Gorakada Antzerki Taldea. (+6 urte) Sarrera 4 euro (bazkideek 3 euro) San Agustin Kultur Gunean.

ABENDUAK 21, astelehena
19:00 'La bella durmiente', L'Atelier gazte ballet-a. Sarrera: 8 euro. San Agustin Kultur Gunean.

ABENDUAK 22, martitzena
18:00 Bakarriketa: "Yo como el poeta... confieso que he vivido" Anunciación Varas
 Egilea: Ricardo Combi
 Zuzendaria: Izaskun Asua Adinekoen udal egoitzan.
18:30 Kontzertua: "Izar gaztea"
 Durangoko pertsona nagusien abesbatza
 Zuzendaria: Jon Ugarriza Adinekoen Udal egoitzan.
19:00 'La bella durmiente', L'Atelier gazte-balleta. Sarrera: 8 euro. San Agustin Kultur Gunean.

ABENDUAK 23, eguaztena
17:00 - 22:00 Areto futbol txapelketa "Angelman sindromearen aldeko golak" Landako kiroldegian.

ABENDUAK 24, eguena
19:00 Olenzero eta Mari Domingi. Txoritxu Alai Dantza Taldea, Tronperri Dantza Taldea, Inurri Eskaut Taldea, Tabira Musika Banda, B. Ertzilla Musika Banda, Jaizale Txistu Taldea eta Tritixia eta Pandero Eskolak.
Ibilbidea: Institutua, Frai Juan Zumarraga, Ermodo kalea, Zumalakarregi kalea eta Andra Mariko Elizpea

ABENDUAK 26, zapatua
 Izotz pista.
 Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra (biak barne)
 Ikastaroetan izena emateko aukera, Pinondo Etxean.
09:00 - 22:00 Areto futbol txapelketa "Angelman sindromearen aldeko golak" Landako kiroldegian.
16:00 eta **18:30** Pirritx, Porrotx eta Marimotots: "Amalur" Sarrerak Pinondo Etxean abenduaren 14tik 18ra (gehienez 10 sarrera pertsonako).
20:00 Gabonetako kontzertu solidarioa: Tabira Musika Banda eta Durangoko Orfeoa. Andra Mariko Basilikan.

ABENDUAK 27, domeka
09:00 - 14:00 Areto futbol txapelketa "Angelman sindromearen aldeko golak" Landako kiroldegian.

18:30 Gabonetako dantzaldia adinekoentzat: "Tolin, ayer, hoy y siempre" Landako Kiroldegian.
19:00 Antzerkia: "La noche árabe". Kabia, Hika eta P6 Sarrera 10 euro (bazkideek 7,50 euro). San Agustin Kultur Gunean.

ABENDUAK 28, astelehena
17:30 - 18:15 Ipuin kontaketa ingelesez: "The Elf's Inventions" (5-8 urteko umeentzat) Udal Biblioteka.
 Gonbidapenak alde aurretik Bibliotekan eta Kids&Us-en.

ABENDUAK 28, 29, eta 30
 Gabonetako haur parkea
11:00-14:00 | 16:00 - 20:00
 Umeak doan. Helduak euro 1. Landako Gunean.

ABENDUAK 29 eta 30
 Txu-txu tren a
11:30-13:30 | 16:00 - 20:00
 Geltokia: Madalena
 Sarrera: Dendak Bai erosketatik.

ABENDUAK 31, eguena
 San Silvestre lasterketa
17:00 Umeen irteera
17:30 Helduen irteera
 Irteera: Santa Ana plazan.

URTARRILAK 2, zapatua
18:00 | 22:00 Maluta, Durangoko Eguberri zirkoa
 Helduek 6 euro. Umeek 4 euro (Bazkideek: 4/3 euro). San Agustin Kultur Gunean.

URTARRILAK 3, domeka
18:00 Maluta, Durangoko Eguberri zirkoa
 Helduek 6 euro. Umeek 4 euro (Bazkideak: 4 euro/3 euro) San Agustin Kultur Gunea.

URTARRILAK 2, 3 eta 4
 Gabonetako haur parkea
16:00 - 20:00
 Umeak doan. Helduak: euro 1. Landako Gunean.

URTARRILAK 5, martitzena
 Erregeen desfilea
18:30 Frai Juan Zumarraga,
19:00 Ezkurdi,
19:20 Udaletxe plaza,
20:00 Andra Mariko elizpea.

URTARRILAK 6, eguaztena
18:30 JAED-eko zozketa benefikoa Andra Mariko elizpean.

ELORRIO

ABENDUAK 19, zapatua
17:00 Kainabera elkarteak antolatuta, Elkartasun Jaialdia. Arriola Antzokian.
19:00 Berrio-Otxoa Orfeoa eta Bilboko Kirikiño Korala kalerik kale.

ABENDUAK 20, domeka
Goiz osoan, Merkatu Txikia: saldu, erosi, oparitu, trukatu.



Arriko Liburudondoa

Kalebarria z/g - Durango
 Tel.: 946 201 893 · Faxa: 946 816 403



CRIS ACADEMIA Musiko Altuna, 11 behea | Durango | Tel.: 606 368 929

- 2015-2016 ikasturteko matrikula dohainik.
- Emaitzarik onenak lortuko dituzu.
- Cambridgeko azterketa ofizialak prestatzen lagunduko dizugu; Durangaldeko zentro ofiziala gara.
- Ingeles maila guztiak haurrentzako eta helduentzako.
- KET, PET, FIRST eta ADVANCE.

Jai zoriontsuak eta urte berri on!



DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA

Astola auzoa, 26.
Abadiño, 48220.

Tel.: 946 818 116
mdurango@bizkaia.org
www.mdurango.org

GIZARTE ZERBITZUAK

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak
- Etxez etxeko laguntza
- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeei arreta psikologikoa eta juridikoa
- Pertsona nagusien dinamizazio zerbitzua
- Adikzioen prebentzio zerbitzua
- Gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua haur, gazte eta familientzat.

TOKI GARAPENA

HIRI HONDAKIN SOLIDOEN BILKETA


KIROLA

- Atletismo pista
- Trinketa
- Belodromoa

EUSKARA

KULTURA

KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIO BULEGOA



Maitte

Lurrindegia eta Bitrikeridenda

Barrenkalea, 22
DURANGO
Tel.: 946 570 917




hitz

liburudenda

Artekalea, 14
DURANGO
Tel.: 946 810 776
info@hitzliburudenda.com




BETI OPORRETAN
Harkaitz Cano
2015
18,00€



BIZI BARATZEA
Jakoba Errekondo
2015
23,00€



XOLA ETA LAPURRA
Bernardo Atxaga
2015
10,40€



BIZIAREN HISTORIA
Stéphanie Ledu & Caroline Hüe
2015
13,95 €



PHOENICOPERUS
Ken Zazpi
2015
18,95€



BELATXA
Jean Mixel Bedaxagar
2015
15,50€



Ana Camarero

Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Goienkalea, 16-1. esk.
DURANGO
Tel.: 946 817 380
Mug.: 639 375 474

- Aurpegiko larruzalaren garbiketa ·
- Aurpegi-tratamendua ·
- Masaje lasaigarriak ·
- Betileen luzapenak ·



UNDARRI BIKE

Bidebarrieta, 5 behea
IURRETA
Tel.: 946 817 808



Elur-oholak eta eskiak ESKUZ konpontzen ditugu eta beraien mantenimendua eramaten dugu



Ekimen solidarioekin zabalduko dute gabonetako egitaraua Durangaldean

Jaed elkartearen aldeko Zumbathon solidarioa antolatuko dute bihar, 10:00etatik 13:00etara



Kotxea izango da aurten ere Jaedeko zozketaren sari izarra.

> GABONAK Jone Guenetxea Gabon sasoi giroan usaindu daiteke. Olentzerok eta Mari Domingik nahikoa lan izango dute Durangaldeko herri guztiak bisitatzeko. Herri ugartan, asteburu honetan gabonetako opariak eta desioak gutunean idatzi, eta Olentzerok jasotzeko aukera izango dute. Abenduaren 24an, berriz, eskualdeko herrietako kaleak zeharkatuko dituzte kalejiran, opariak etxerik etxe banatzen hasi aurretik.

Ekimen solidarioak

Gabonen testuinguru honetan, ekimen solidarioei ere lekua egingo diete hainbat herritan. Bihar, esate baterako, Jaed elkartearen aldeko Zumbathon solidarioa egingo dute, Durangon. Tradizioari eutsiz, urtarrilaren 6an elkarrekin zozketa benefikoa egingo du, Andra Mariko elizpean. Abenduaren 26an, berriz, Angelman sindromedunen alde areto-futbol txapelketa antolatuko dute. Horrez gain, Duran-

goko Tabira Musika Bandak eta Orfeoiak ere kontzertu solidarioa eskainiko dute.

Zaldibarren, ostera, tonbola eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte, bihar, Tsunami Laranjaren babesean. Batutako dirua minbiziaren aurka diharduen La Cuadri del Hospi elkar-terera bideratuko dute. Elorri- on, Kainabera elkarrekin Bogotako jantokien proiektua finantzatzeko elkartasun jaialdia antolatuko du, bihar.

Gauero programako begirale eta gazteek 'Nun ikusiot nik zure aurpegixe' irudikatuko dute

Zornotzako egitarauaren baitan, Gauero programako begirale eta gazteek abeslari ezagunen imitazioak egingo dituzte zapatuko *Nun ikusiot nik zure aurpegixe?* jaialdian. Zapatu honetan, 20:00etan, izango da, Zelaieta Zentroan.

Bestalde, aurten, Durangon lez, Abadiñon ere izotz-pista jarriko dute, probalekuan, lehenengo, abenduaren 28tik 30era eta urtarrilaren 2tik 3ra.



ZALDIBAR


- Abenduak 24 ·
BADATOK MARI DOMINGI ETA OLENTZERO!
12:00etan HARRERA Olazar kalean, gero danok Zaldia plazara kalejiran.
12:30ean ONGI ETORRI jaialditxo.
- Abenduak 26 ·
SAN EZTEBE EGUNA
18:30etik aurrera Eskolako pilotalekuan: taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.
- Abenduak 26 eta 27 ·
UMEEN GABONETAKO PARKEA
11:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00.
- Abenduak 31 ·
16:30ean XXVIII. Olazar Pilota Txapelketako finalak.
17:00etan II. San Silvestre lasterketa.
- Urtarrilak 1 ·
IGOERA SANTAMARINAZARRERA
10:30ean talde argazkia eta hamarretakoa.
- Urtarrilak 5 ·
ERREGREEN DESFILEA
18:30ean hasita ibilbidea: Olazar, Euskal Herria, Arantzamendi, Euskal Herria eta udaletxeko plaza.



ZALDIBAR
Ezizaketa Udaia



Orain, Gasteizen
ereaurkituko gaituzu



H

HAMPTON
OSAGARRIAK

Gabon zorientsuakizan!

Montevideo etorbidea, 3
DURANGO
Tel.: 946 056 295

Ortiz de Zarate, 17
GASTEIZ
Tel.: 945 033 209

www.hamptonosagarriak.com

hamptonosagarriak



afede



Gure Jostailu Denda



24,99€
YAGOR KONTU KONTARI
 15 ipuin kontatzen ditu
 Elebiduna: euskara eta ingelesa



3,50€
FAMILIEN KARTA JOKOA



25,95€
SUPERPOLY EUSKARAZ
 Superpoly ezagunena euskal herriko hiriburuak kaleak saltzen eta erosten jolasteko.



21,95€
KONEKTATU HEZIGARRIA
 Eskolako lehenengo gaiak buruzko 352 galdera.



19,95€
HITZGURUTZATUAK
 Hitz osatuen betiko jolasa.

PARTE HARTU, ETA JOLAS BAT IRABAZI

Nortzuk irabazi dute Berbaro taldeak antolatutako ipuin laburren lehiaketa?

Bidali erantzuna eta zure datuak: zozketa@anboto.org helbide elektronikora.

Asteburuan jasotako erantzunekin astelehenean zozketa egingo dugu.

Goya sariketarako izendatu dute 'Yoko eta lagunak' filma

Lara Izagirre zornotzarrak zuzenduriko 'Un otoño sin Berlín' filmean egindako lanagatik, Irene Escolar aktorea ere hautatu dute sariketarako

> ZINEMA I. Esteban

Durungaldeko sortzaileen parte hartzeagaz egindako bi lanek jaso dute Espainiako zine akademiak antolatzen duen Goya sariketaren XXX. edizioan izendapena. Edorta Barrietabeña iurretarraren gidioa duen eta Juanjo Elordik zuzendu duen *Yoko eta lagunak* filma, animazioko film onenaren kategorian izendatu dute. Aktore berri onenaren sariketarako hautatu dute, berriz, Lara Izagirre zornotzarraren *Un otoño sin Berlín* filmeko papel protagonista egin duen Irene Escolar aktorea.



EDORTA
BARRUETA-
BEÑA

“Honaino heldu izana bakarrik, oso pozgarria da, nahikoa sari da guretzat, baina ez dugu uste saria jasotzeko aukerarik

dugunik”, dio Barrietabeña gidoiari iurretarrak: “Ezin gara lehiatu hor dauden beste film batzuekin; guk baino hamar aldiz aurrekontu handiagoa dute”.

Edorta Barrietabeña:
“Honaino heldu izana bakarrik, oso pozgarria da, nahikoa sari da guretzat”

Sariketarako hautatua izateak filma ezagutzera emateko asko lagundu dezakeela uste du Barrietabeña. “Beti saiatzen gara lanak ahal beste promozionatzen, baina horrelako izendapen batek askoz oihartzun handiagoa dauka”.

Azaroan aurkeztu zuten *Yoko eta lagunak* zinema-aretoetan, eta harrera ona eduki dutela azaldu du gidoiariak: “Pozik gaude zinemetan oraindik ere bizirik dagoelako pelikula, ez

delako bi astean desagertu pantailetatik”. Azpimarratu du kontuan hartzekoa dela, normalean zinemara joaten ez diren adineko umeentzat egindako filma dela, 4 eta 8 urte artekoentzat egindakoa, eta apustu horrek ere baldintzatzen duela harrera.

Aktore berri onena

Lara Izagirre zornotzarrak zuzenduriko *Un otoño sin Berlín* filmeko June protagonistaren paperagatik, aktore berri onenaren Goya sariketarako hautagai izango da Irene Escolar (Madril, 1988). Escolarregaz batera, Iraia Elias aktore euskalduna ere hautagai da kategorian horretan, *Amama* filmean egindako lanagatik. *A cambio de nada* filmeko Antonia Guzmán eta *El rey de La Habana* laneko Yordanka Ariosa dira kategorian horretako beste bi hautagaiak.

Otsailaren 6an, Madrilen egingo duten galan emango dituzte jakitera irabazleen izenak.



Azaroan estreinatu zuten 'Yoko eta lagunak'.



'Un otoño sin Berlín' filmean June protagonista da Escolar.

> ZIRKOA I. Esteban

Urtarrilaren 2an eta 3an Durangoko San Agustinen emateko sortu dute *Maluta* zirku ikuskizuna. Eguberri bueltan hainbat herrialdeetan egiten diren gisako zirku jaialdi berezia da lehenengoz ikusgai izango dena. Euskal Herrian ez dira ohikoak horrelako ekimenak, eta aitzindari da San Agustin.

Ume zein helduentzako aproposa da *Maluta*. Gorka Ganso aktorea da ekimenaren burutzatzailea, eta azpimarratu du, “ikusgarria delako, eta umore zirikatzailea ere badarabilelako, da denontzako modukoa”.

Hiru emanaldi eskainiko dituzte San Agustin kulturgunean: urtarrilaren 2an eta 3an publiko familiarrentzako saio bana egingo dute, 18:00etan; eta urtarrilaren 2an, 22:00etan, beste saio bat eskainiko dute, “zirku eta umorea publiko helduentzako ere aukerakoa izan daitekeela erakusteko”.

Estatuan lanean diharduten, baina jatorri desberdinetakoak diren dozena bat artista ariko dira euren lanen laginak *Maluta* ikuskizunean eskaintzen. *Gansok* azaldu duenez, Stéphanie Bouchard kanadarrak, Andrián Conde argentinarrek,

Eguberrietako zirku jaialdiaren lehenengo edizioa, Durangon

'Maluta' izena du ekimenak; urtarrilaren 2an eta 3an izango dira emanaldiak



Pedro Benavides bere Cyr gurpilearekin ariko da 'Maluta' ikuskizunean.

Pedro Benavides txiletarrak, Leongo Cirk About It taldeko hiru kideek, eta Endika Salazar eta Maider Yabar euskaldunek

parte hartuko dute emanaldian. Bestalde, artista horiek eskainiko dituzten ikuskizunen arteko lotura Gorka *Ganso* ekimena-

ren koordinatzaileak egingo du, umorez jantzitako aurkezpenen bitartez: “Zirku tradizionalan ez bezala, barbarik bakoak izan-

go dira egingo ditudan aurkezpenak: ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditut, esate baterako”.

Parte-hartzaile guztien lana oso ondo ezagutzen du *Gansok*, eta berak koordinatu du Durangon emango duten ikuskizuna. Emanaldia hasi baino ordu gutxi lehenago elkartzeko dira parte-hartzaileak, eta, esperientzia handiko artistak direnez, “eta entsegu askorik egiteko denborarik ez dagoenez, inprobisazioak ere bere lekua izango du”, aurreratu du Gorka *Gansok*.



GORKA
'GANSO'

Zirkuaren aniztasuna islatuko du *Maluta* ikuskizunak: akrobaziak, malabareak, trapezioak eta aereoak izango dira ikusgai. *Gansok* aurreratu du, Pedro Benavides bere Cyr gurpilearekin etorriko dela, metalezko hoola-hop erraldoi batez, eta Euskal Herrian gutxitan egoten dela halako ikuskizun bat ikusteko aukera. “Merezi du, benetan, Benavidesena eta besteen lana ikustera etortzeak”.

Durangaldeko musika lehiaketa bietako finalistak argitu dituzte

Platerueneko Lokaletik At lehiaketaren finalean joko dute, bihar, lau talde finalistek

> MUSIKA I. Esteban

Durangaldeko gazteek osaturiko lau taldek joko dute, bihar, Durangoko Platerueneko Lokaletik At musika lehiaketaren finalean: Kohatu, Etsipen, One Prise eta Polisoinu taldeek. 22:00etatik aurrera izango da finala, eta lau kanta eskainiko ditu talde bakoitzak bertan.

Kohatu, Etsipen, One Prise eta Polisoinu taldeek joko dute Platerueneko musika lehiaketaren finalean

Musikaren eta euskalgintzaren arloko kideek osaturiko epaimahaiak erabakiko du zein talde den musika lehiaketa honen lehen edizioko irabazlea. Musika tresneria erosteko 500 euroko saria jasoko du irabazle hautatzen duten taldeak. Plate-

ruenak Durangaldeko Amankomunazgoaren babesagaz antolatzen du lehiaketa hau, besteak beste, "gazteen artean, eta musikari lotuta, euskararen erabilera bultzatzeko".

Durangaldeko Maketa Lehiaketaren finalistak zerrenda ere aste honetan eman dute jakitera: Desore, Hamaika Ikusteko Jaiok eta Yellow Marsupials taldeek joko dute finalean. Fina-



Hamaika Ikusteko Jaiok taldea da Durangaldeko Maketa Lehiaketaren finalistetako bat.

leko kontzerturako data zehatza ez dute adostu oraindik, baina urtarrilean egingo dute.

Hiru talde hauek eta beste seik jo dute Durangaldeko Maketa lehiaketaren kanporaketan, eta parte hartu duten talde guztien "maila altua" azpimarratu dute antolatzaileek.

Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotzako udaletako gazteria arloak dira musika lehiaketa honen antolatzaileak, eta hirugarren edizioa da aurtengoa.

GEURE DURANGALDEA

**ARANTZA ARRAZOLA
ETA MAJDER LARRANAGA**



San Agustin kulturgunea

Prezioa?

Kultur ohiturez galdetuta oso gutxi dira "ez zait gustatzen" erantzuten dutenak. Zuzentasun politikoaren sasoion neurriko erantzun diplomatikoa, akaso baita zintzoa ere. Ohituretara pasatzean, ordea, "zer maiztasunekin joaten zara?". Erantzuna beste muturrekoa da. Antzerkiaren kasuan, denbora falta, prezioa edo kulturaren gaineko BEZa aipatu ohi dira.

Prezioa ekuaziotik atera nahian, edo, benetako arrazoi gordea hori dela sinetsita, *Kultura bonua* eta *Zatoz antzokira* kanpainak jarri dira martxan. Lehenarekin, diru baten truke balio altuagoko abonua bat eskuratzen da, bigarrenarekin, udaberrira arte 3 euskal lan ikusi dituenak laugarrenarako txartela eskuratzen du.

Honi guztiari antzoki publikoan bazkideztza txartelak batuta, gure kasuan urteko 25 euroan, deskontuak eta doako sarrerak eskaintzen ditugu. Azken hamar urtean ez da preziorik igo, hala adostu delako antzoki publikoan SAREAn, eta erakundeek hala erabaki dutelako. Izan ere, herrietako ia antzoki denak publikoak gara, horregatik eutsi ahal izan diogu prezioari, eta kulturaren BEZak ez du sarreraren prezioan eragin. Harro omen gaude euskaldunok Osakidetzagaz, baina zer gutxi akordatzen garen teatro publikoak ditugula aldarrikatzeaz!

Lagun batek esaten duen moduan, zabal ditzagun atea eta bete daitezela eserlekuak! Tarifa eta balditza horiek guztiek ez dute-eta horrenbeste balio! Hala ere, antzokiak betetzeko larri jarraitzen dugu. Akaso prezioan barik, beste nonbaiten bilatu beharko dugu horren arrazoia.

Urtea bertso artean amaitzeko gonbidapen bikoitza Plateruenetik

Abenduaren 30ean da Urteko Azken Bertso Saioa

> BERTSOLARITZA I. E.

Unai Iturriaga bertsolari durangarrak emandako gaien inguruan lau bertsolarien jarduna entzunaz gozatzeko aukera eskainiko dute Plateruena Kafe Antzokiak eta Berbaro elkar-teak, abenduaren 30ean. Onintza Enbeita, Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi eta Amets Arzallus bertsolariak kantatuko dute aurten, Durangoko Urteko Azken Bertso Saioan, eta sarrerak Plateruenean bertan zein Berbaro elkar-tearen

bulegoan eskuratu daitezke: 5 euroan Berbaroko kide izanik, eta 8 euroan, bestela.

Bertsolaritzari lotuta, beste hitzordu bat ere badakar Plateruena Kafe Antzokiko urte amaierako programazioak. Abenduaren 29an, 19:00etan, *Xalbador, izana eta izena* dokumentala emango dute Plateruenean, eta solasaldirako aukera ere luzatuko dute. Eneko Dorronsoro dokumentalaren zuzendaria eta Xabier Amuriza gonbidatu dituzte solasaldira.

Elorrioko Musika Eskolaren 25. urteurreneko kanta

Abenduaren 23ko kontzertuan aurkeztuko dute

> MUSIKA I. E.

Elorrioko Musika Eskolaren mende laurdena ospatzeko 2015ean antolatu dituzten ekintzak borobilduz, ikasle eta irakasleen parte hartzeagaz, kanta bat sortu eta grabatu dute.

Musika Eskolaren arduradunek adierazi dutenez, kanta eta bere bideoklipa biltzen dituen diskoa datorren astean kaleratuko dute. Abenduaren 23an, 18:30ean, Arriola antzokian egingo duten kontzertu berezian aurkeztuko dute kanta.

Urteurreneko kantaren musika Mikel Gaztañaga eskolako

irakasleak sortu du, eta Jose Garaizabal bertsolari elorriarrak egindakoa da letra.

Ikasle eta irakasleen parte hartzeagaz sortu dute Musika Eskolaren 25. urteurreneko kanta

Mungiako Gaua estudioan grabatu zuten kanta, azaro erdialdean, eta hilaren amaierarako bideoklipa ere prest zeukaten musikari elorriarrek.

Moby Dick
Gorakada Antzerki Taldea

Abenduaren 20an
18:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
IGANDEETAN MENU BEREZIAK

ABENDUAK 18
22:00etan
JAZZ KONTZERTUA

ABENDUAK 19
22:00etan
LOKALETIK AT LEHIAKETA

ABENDUAK 29
19:00etan
XALBADOR "IZANA ETA IZENA" BERBALDIA

Areto-futbol torneo solidarioa egingo dute, Angelman Sindromea dutenei laguntzeko

Izen-emateekin lortutako diruaz gainera, errifak atera dituzte hainbat komertzio eta kirolariren sariekin



Mendibeltz eta Durangoko Udaleko ordezkariak, eta Angelman Sindromea Elkarteko kide eta gurosoak seme-alabekin.

> ARETO-FUTBOLA J. D.

Mendibeltz Kirol Taldeak areto-futbol torneo solidarioa antolatu du, Durangoko Udalaren laguntzagaz. Iaz, San Filippo gaixotasuna dutenei laguntzeko erabili zuten batutako dirua. Aurten, Durangaldeko Angelman Sindromearen Elkartea-rentzat izango da.

Estatuan 180 pertonek dute Angelman Sindromea, eta Bizkaian hogeita inguru dira. Astelehenean, torneo aurkezteko udaletxean egindako prentsurrekoan, Durangaldeko bi izan ziren: urte bi dituzten Jon eta Haizea, euren gurasoekin batera. Torneotik ateratako diruaren zati bat ikerketara bideratuko

dute. "Euskal Herriko Unibertsitatean diharduen Ugo Mayorrek Angelman Sindromea aztertzen du, eta bere ikerketek lagundu gura diegu", adierazi zuen Luisa Reyes Haizearen aitak.

Areto-futbol torneo hiru jardunalditan jokatu dute, Landako kiroldegian: abenduaren 23an, 17:00etatik 22:00etara;

abenduaren 26an, 09:00etatik 22:00etara; eta abenduaren 27an, 09:00etatik 14:00etara.

Guztira, 18 taldek parte hartu dezakete ekimen solidario honetan. Izen-ematea 100 euro da talde bakoitzeko. Txapelketak maila bi ditu: talde federatuak eta ez federatuak. Federatuen maila beteta dago, dagoeneko. Ez federatuen mailan, 12 talderentzako tokia dago, eta oraindik ez daude plaza denak beteta; 'Goles para el Síndrome de Angelman' izeneko Facebook orrialdean egin daiteke izen-ematea.

Errifak hamaika sarigaz

Txapelketaz gainera, errifak ere atera dituzte. Inguruko komertzio eta tabernetan daude salgai, eta txapelketako egunetan Landako Kiroldegian bertan ere erosi ahalko dira. Hainbat komertzio eta kirolariek emandako sariak irabazi daitezke: Athleticen Ander Iturraspe eta Xabi Etxeitarren kamisetak sinatuta, arropa, bazkari txartelak...

Bestalde, Durangoko Herriaren Eskubide alderdiak 300 euroko donazioa egin dio asteon Angelman Sindromea Elkarteari.

Ariznabarreta Euskadiko txapeldun maratoi erdian

Durango Kirol Taldea izan zen klubik onena

> KORRIKA J.D.

Joan zen domekan, Gasteizen lehiatu zen maratoi erdian Euskadiko txapeldunak erabaki ziren. Gizonetan Oier Ariznabarreta durangarrak irabazi zuen, eta bere taldekide Aitor Mimenza eta Ibon San Miguelsker, taldekakoa ere irabazi zuen Durango Kirol Klubak.

Ariznabarretak esprint ikusgarrian irabazi zion Hurtao gasteiztarrari. Durangalde Running taldeko Dabid Garcia-rentzat izan zen podiumeko hirugarren postua.

Emakumeetan, Silvia Trigueros abadiñarra Euskadiko txapelketako podiumera igo zen, hirugarren postuan.



Oier Ariznabarreta erdian, Aitor Mimenza eta Ibon San Miguelskin. DKT

Korrika probak Elorrion, Durangon eta Zornotzan

Elorrion Santxibiri proba egingo dute, hilaren 27an

> PROBAK J.D.

Urtea amaitu aurretik, korrika zein mendiko bizikletan izerdia botatzeko hainbat proba izango dira eskualdean. Elorrion, aurten, laugarren aldian egingo du Santxibiri lasterketa herrikoiak. Durango Kirol taldeak Elorrioko Udalagaz batera antolatzen du. Nagusien lasterketa 12:30ean hasiko da, eta aurtengo ibilbideak 5,5 kilometro izango ditu. Aurretik, umeentzako lasterketak antolatuko dituzte. Santxibiri lasterketarako izen-ematea doakoa da kirolprobak.com webgunean.

Zornotzan eta Durangon San Silbestre lasterketak egingo dituzte, abenduaren 31n. Durangoko proba 17:00etan hasiko da, Santa Anan, eta Zornotzako 18:00etan, erdigunean. Proba biek bost bat kilometroko ibilbidea izango dute.

Belatxikietara Igoera

Extrem Zornotza taldearen Belatxikietara Igoerak 13. aldian egingo du abenduaren 24an. Belatxikietara joateko hiru modu daude: 09:30ean oinezko ibilbidea hasiko dute, 10:15ean korrikakoa (14 km) eta 10:30ean BTTkoa (10 km).

Durangon eta Zornotzan San Silbestre herri lasterketak egingo dituzte, abenduaren 31n

Izen-ematea www.extremzornotza.com-en egin daiteke, hilaren 22ra arte (5 euro). Egunean bertan eginez gero, 15 euro izango da. Prezioan barne daude proban zeharreko elikadura produktuak eta hamaiketakoa, besteak beste.

> AGENDA

> FUTBOLA

BIGARREN B MAILA

Amorebieta - Gernika
· Zapatuan, 17:00etan, Urritxen.

MAILA GORENA

Zaldia - Iturigorri
· Domekan, 11:30ean, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA

Zorrotzako - Mungia
· Zapatuan, 17:30ean, Larrean.

BIGARREN ERREGIONALA

Iurretako B - Padura B
· Zapatuan, 18:15ean, Larrakozelaian.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Durangoko Bikainak - Uritarra B
· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

Elorrio B - Ermua B
· Domekan, 16:30ean, Eleizalden.

> ARETO-FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Elorrioko Buskantza - Laskorain
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Elorri Txiki - Pozgarri Adarve
· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kiroldegian.

Gu Lagunak - Presion Break B

· Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian

BIGARREN ERREGIONALA

Mallabia B - Mundakako Katillotxu
· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Mendibeltz - Erandiotarrak B

· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian.

> ESKUBALOIA

Ibaizabal - Urduliz

· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian

> SASKIBALOIA

ZILARREZKO LIGA

Zornotza S.T. - Araberi
· Zapatuan, 18:30ean, Larrean.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baqué - Zornotza
· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA (gizonak)

Anbotopeko - La Salle
· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

Zornotza - Santurtzi
· Domekan, 19:30ean, Ixerbekoa kiroldegian.


> PILOTA

FRONTENIS TXAPELKETA

Mallabian, urtarilaren 9an
· Izen-ematea: 669 028 718.
· 5 euro bazkideentzat eta 8 ez direnentzat.
· Sariak: Lehen saria: 120 euro / Bigarren saria: 80 euro

Igor Azpirik Olazar txapelketako finala jokatuko du, hilaren 31n

Lau bider gertu geratu ostean, aurtan txapela janzteko hautagai izango da elorriarra



Azpirik Olaizola atzelariagaz lortu zuen finalera sailkatzea.

> PILOTA Joseba Derteano *Ezina ekinaz eginga.* Igor Azpiri elorriarraren burutik makina bat bider pasatuko zen esaera zahar hori azken urteetan. Bere

pilotari ibilbidean lau bider geratu da Olazar pilota txapelketa ospetsuaren atarian. Baina, aurtan amaitu zaio finalerdietako maldizioa, eta, lehenengoz, txapela janzteko hautagai izango da abenduaren 31n, 16:30ean, jokatuko den finalean. Joan zen astean, Olaizola atzelariak eta biek 22-18 menderatu zituzten

Errandonea eta Martinez. Finalaurreko gogor eta parekatua jokatu zuten. Partiduan zehar, hainbat berdinketa izan ziren; azkena, 18nakoa. Handik, zuzenean egin zuten 22ra arteko bidea Azpirik eta Olaizolak.

Lau t'erdiko lehen finalista ere erabaki zuten jardunaldi horretan. Binakakoan baino emozio gutxiagoko partidua jokatu zuten Zubizarretak eta Egigurenek. Zubizarretak gehiago zela erakutsi zuen hasiera-hasieratik (13-2, 20-5), eta erraz nagusitu zen. Azken txanpan, Egigurenek markagailua itxuratzea lortu zuen, baina azken emaitzak argi erakusten du Zubizarretaren nagusitasuna: 22-11.

Bigarren finalerdiak, atzo
Bigarren finalerdiak atzo gauean jokatu zituzten Zaldibarko pilotalekuan. Lau t'erdian etorkizun handiko gazte bi lehiatu ziren: Aranguren eta Salaberria. Binaka, berriz, Urbieta-Martija eta Arteaga-Erasun izan ziren aurrez aurre (emaitzak anboto.orgn).

ADITUAREN TXOKOA

UNAI ZAMALLOA

Saskibaloia



Olentzerori zuzendutako gutuna

Lehenengo eta behin, eskerrik asko! Aurreko denboraldia ez zen batere txarra izan. Gure taldeek, orokorrean, denboraldi guztiz positiboak izan zituzten.

Ametx Zornotzak, batez ere. Oso denboraldi ona! Dena dela, orain buru-belarri ari da denboraldi berrian, eta, egia esan, zailtasun eta akats asko dituzte. Oso hasiera kaskarra! Dena dela, taldea buru-belarri dabil lanean, zulotik irteteko. Oscar Raya pibotak taldea utziko du, bere lanarekin ez baita barruko jokoa indartu, eta ezinbestekoa da gorantza egiteko. Horrela, taldea indartzeko jokalaria eskatzen dugu. Horrekin, eta egunero egiten den lan handiarekin, ia zulotik irteten dugun!

Tabirako Baqué dela-eta, aurreko urtean eraturako Zuzendaritza talde berriak egitura eta lan berri asko jarri ditu martxan, eta horretan arituko dira, epe ertainean, emaitza onak lortzeko. Bitartean, ohiko eguneroko lanean talde nagusiak buru-belarri ari dira emaitza onak lortuz. Mutilen taldea 3. eta nesken taldea 2. postuan daude. Beraz, Klubaren eraldaketan indarrez jarraitzeko eskarera luzatzen dizugu.

Horrela ba, eskerrik asko, Olentzerori! Badakit, aurrera egitean, dena beteko dela!

Zorionak eta urte barri on denorri! Dagigun!

UCIk atea ireki dio Birari 2017ko WWT egutegian

> TXIRRINDULARITZA

Emakumeen Bira ez da Women World Tourrean izango 2016an, baina bai 2017an telebista bidezko emankizuna bermatzen badute.

2016an, nazioarteko egutegian jarraituko du, orain arteko 2.1 kalifikazioagaz. UCik ekainetik apirilera egutegi aldaketa -13tik 17ra- onartu dio, astean. 2017ra begira, berriz, Bira WWTan sartzeko prest dago nazioarteko txirrindularitza erakundea. Horixe baieztatu dute Emakumen Bira Ziklismo Kirol Elkarteko arduradunek.

Horretarako, telebista bidezko emankizuna bermatu behar da. Horregatik, ETBri eskatuko diote bere sasoiari lotutako akordioari eusteko 2016an, horrela aurrekari bat ezarri dezan.

Etxeko pilotarien arteko finala ikusgai gaur, lurretan

Bereinkua-Zezeaga eta Apaolaza-Badiola bikoteek Bizkaiko klubaren arteko finala jokatuko dute

> PILOTA

Asteburuan, Bizkaiko Klubaren Arteko Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte modalitate denetan. Iurretak eskuzko senior eta kadete mailako finalak hartuko ditu, gaur, 18:30etik aurrera. Iurretarrontzat ospakizunerako arratsaldea izango da, bigarren mailako seniorren finaleko protagonistak Iurretako pilota elkartean dabilzalako: Mikel Bereinkua-Josu Zezeaga eta Jon Apaolaza-Unai Badiola bikoteen artean dago txapela. Gainera, bikote biek segurtatu dute lehen mailarako iguera.

Abadiñoko Tornosolo trinkean, buruz buruko hainbat fi-

nal jokatuko dituzte, zapatuan, 16:30ean. Nagusietako finalean, Asier Aspuru abadiñarrak jokatuko du; gazte mailakoan, Gontzal Azkarragaurizar elorriarrak, eta kadeteetakoan, Andoni Alvear durangarrak.

Zestako finalak Durangoko Ezkurdi Jai-Alain jokatuko dituzte, zapatuan, 16:00etan. Markinak lau finaletako hirutan ordezkariak izango ditu, eta 22 urtez azpikoan Markinako bikote biren arteko finala izango da.

Paleta goman, azkenik, Atxondo pilota elkarteko Ane Diezek eta Amaia Marizkurrenak Kurene taldeko bikotea izango du aurkari, gaur, 19:00etan, Basaurin.

Bizkaiko prentsak Gurutze Frades sarituko du

> IRON MANA

Bizkaiko kirol prentsa elkarrekin 2015ean zehar nabarmendu diren kirolari eta kirol elkarrekin sarituko ditu abenduaren 22an, 20:00etan, Bilboko Gran Hotelean egingo duten sari banaketan. Aurtengo sa-



GURUTZE
FRADES

rituetako bat Gurutze Frades iurretarra izango da. 'Urteko balentria' saileko saria emango diote Vichy Iron Manean lortutako garaipenagatik. Oro har, triatlona ez ezik, Iron Manean ere hainbat lorpen garrantzitsu lortu ditu aurtan Fradesek.

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua Industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Zuntzaren indarra iritsi da *Durangora*

Zuntz Optikoaren **300 Mb-en** indarrak zure mundua irauliko du. Konexioaren abiadura, TB HDn, eta online jokoak, beste galaxia bateko esperientzia izan dezazun.

Zuntza zurekin egon dadin



Kontratatu hemen: movistar.es Movistarren saltokiak 1004

© &™ Lucasfilm Ltd.



Telefonica

**STAR
WARS**
EL DESPERTAR DE LA FUERZA
18 de diciembre en cines

> Berbaz

Andoni Mesa | Zaldibarko Tsunami Laranjaren antolatzailea | Elorrio, 1974

“Diru gehiago bideratu beharko litzateke, bai ikerketara bai gaixo eta familiei laguntzera”

Egun osoko egitaraua osatu dute ekimenaren bultzatzaileek; hezur-muina ematearen garrantziaz kontzientziaztea ere lortu gura da



> BERBAZ Aitziber Basauri Haurren minbiziari aurre egiteko maratoi solidarioa antolatu dute Zaldibarren, zapatuan, abenduaren 19an. Ahalik eta diru gehien batzea dute erronka; La Cuadri del Hospi elkartera bideratuko da diru hori.

Dena prest biharko Tsunami Laranjarako? Zein da erronka? Gurutzetako erietxean haurren minbiziari aurre egiteko gartzan dabiltzan egitasmoari laguntzeko ahalik eta diru gehien batzea da erronka. Opari piloagaz tonbola solidarioa egingo da, eta jende asko etortzea espero dugu, zaldibartarrak ez eze inguruko herrietakoak ere bai. Lortutako diru guztia La Cuadri del Hospi elkarterari eman go zaio.

Erantzun ona espero duzue? Bai, erantzun ona izango duela espero gaude. Herriko jendea asko inplikatu da, gaian sartu da. Salgai jarritako hainbat kamisetak erosi dituzte, eta hor dago 2016rako kaleratutako egutegia ere bai. Egitarau txukuna osatu dugu, eta tonbolarako lortutako opariak itzelak dira! Ez genuen espero horrenbeste gauza ematea: Athletic eta Eibarko jokala-

rien kamisetak, jostailuak, afari bi, tatuaje bat, musika CDak, bizikleta... gauza piloa. Karpa jarriko dugu udaletxeko plazan. Futbol partidak futbol zelaietan jokatu dira, eta saskibaloia partida, kiroldegian; Gimnasia erritmikoa, frontoian.

Maiatz bueltan sortu zen ekimena. Nola izan zen? Zoro-zoroan, berbetan ari gine-la. Helburu solidario batez suhiltzaileen egutegiaren antzerako zerbait egin genezakeela pentsatu genuen, gaixotasun arraroen ikerketarako-edo. Azkenean, haurren minbiziaren kontrako ikerketari laguntzea erabaki genuen. Lehenengo, minbizia zuen Ekaitz durangarraren izekogaz jarri ginen harremanetan, eta Susana amagaz gero. Durangon egindako lehenengo marea laranjan ezagutu genuen elkar. Zaldibarko lagun eta merkatari batzuk egutegi solidarioa kaleratzeko asmoaz aritu ginen; salmentagaz ateratako dirua minbizia duten haurrei laguntzeko bideratuko zela. Osteen, berotu, eta zerbait handiagoa egitera ere animatu ginen.

Nola saldu da egutegia? Nahiko ondo. Durangoko Azo-

kan gehiago saltzea espero genuen, baina hainbeste gauza daude... Hala ere, Zaldibarren eta inguruetan saltzen ari da. Oraindik, urtea bukatu arte, eta zapatuan bertan, salduko delakoan gaude. Bost euroan saltzen dugu, eta lan guztia geuk egin dugu: diseinua, argazkiak...

Ekimenak jarraipena izango du datozen urteetan?

Ritxi Perez eta ni neu saiatuko gara urtero egiten: egutegia eta maratokia. Hobeto edo txarrago, diru gehiago edo gutxiago lortu-

ta... ahal dena egingo dugu. Zaldibarrerako ere gauza polita da.

Hezur-muina ematearen garrantziaz kontzientziaztea ere bada helburua.

Bai. Odola ateratzea baino ez da, eta, inorekin bateragarri izanda, hezur-muina emateko momentua helduz gero, oso erraza da prozesua: ez da batere mingarria. Izan daiteke inoiz ez deitzea, baina, zenbat eta emaille gehiago izan, orduan eta hobeto. Ni ere emaille naiz. Bihar, hezur-muina eman, eta transplanta-

“Guztiok animatu nahi zaituztet emaille egitera; ez duzu ezer galtzen, biziak salba zenitzake”

tzearen eta guraso hematopoietikoen inguruko informazioa ere emango da.

Emaille legez, zer duzu esateko. Guztiok animatu nahi zaituztet emaille egitera. Ez duzu ezer galtzen, guztiz kontrakoa, biziak salba zenitzake. Oso erraza da, baina, askok ez du informazioarik, bildurra dago.

Kosta egiten zaigu minbiziaren normaltasunez berba egitea... Askori bai. Baina, hor dago, eta zeozer egiterik badago, saiatu egin behar da; batez ere, umee-kin, eurak dira-eta etorkizuna. Minbiziaren berba egiteko beldurra kendu behar dugu; argi esan umea gaixorik dagoela, Ekaitzen amak, Susanak, esan moduan.

Baliabide faltak zuzenean eragin du minbiziaren ikerketan. Hala da. Diru gehiago bideratu beharko litzateke instituzioetatik, bai ikerketarako bai familia eta gaixoari laguntzeko. Ume askok denbora luzea egin behar dute ospitalean, eta egonaldi hori ahalik eta atseginena izan dezaten lagundu beharko litzateke.

EGITARAUA	
10:00	Tonbola solidarioa (egun osoan).
10:00-12:00	Umeentzako tailerrak.
11:00	Batukada (Berrizko Gaztetxea).
11:00	Gimnasia erritmikoa.
12:00	Umeentzako antzerkia eta kale animazioa.
13:00	Kontzertua: Artaburuak.
14:00	Perkusioa: Zaldibar/Senegal.
16:30	Futbola: Zaldibar-Eibar-Barakaldo (kimuak)
17:00	Saskibaloia: Zaldua-Tabirako (beteranoak)
18:00	Ipuin kontalaria: Itziar Gamero
19:00	Kontzertua: Deiedra + Zebel Rock + Revolta Permanent
00:00	Mesa Rock, Sorgin tabernan





Jaiegun hauetan, *etxe goxotasuna ospatu*

Eguberrietan, ez dadila garrantzitsuena falta. Zure inguruko goxotasuna eta etxean bezala sentiarazten zaituena.

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaie itxia.
- ERROTARITXUENA: Atikoa. 3 logela, 2 komun, sukalde-egongela. 2 terraza handi. Etxe osoak kanpora ematen du. 4 kotxerentzako garaie itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaiea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaie itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaie itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garaiea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garaiea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaie bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baseria. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailean kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garaiea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ARANDOÑO TORRE : 112m2 GUZTIZ BERRIZTATUA



- 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garaiea. Eguzkitsua. **310.000€.**

FKO. IBARRA : 90 m2



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garaiea eta ganbara. **275.000€.**

ZABALE: 90m2



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoia. Garaiea eta trastelekua. **249.000€.** Negoziagarria.

FKO. IBARRA: 105 m2



- 4 logela, egongela handia, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Berogailua. **230.000€.**

BERRIZ - GABIOLA: 90 m2



- 3 logela, 27 m2-ko egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekua. **240.000€.**

BERRIZ - ITURRIZA : 60m2 AUKERA APARTA



- 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Trastelekua. **125.000€.**

www.inmodurangesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ALLUITZ: 1 edo 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaiea eta trastelekua.
 - ALLUITZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi.
 - ANDRA MARIA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza.
 - ARAMOTZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekua.
 - ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
 - ERMODO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garaiea eta trastelekua.
 - ERROTARITXUENA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Garaiea aukeran, eta trastelekua.
 - ERRENTENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garaiea aukeran.
 - EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garaiea aukeran, eta trastelekua.
 - EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
 - FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea aukeran.
 - GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, 2 komun eta 2 bainugela. Portxea. Garaiea eta trastelekua.
 - GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
 - JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
 - JUAN DE ITZIAR: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
 - JUAN DE ITZIAR: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Lursailarekin.
 - JUAN MARI ALTUNA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garaiea eta trastelekua.
 - KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
 - MARTXOAREN 8KO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea.
 - MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
 - MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza.
 - MURUETA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
 - PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garaiea.
 - SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
 - SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garaiea eta trastelekua.
 - SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garaiea eta trastelekua.
 - SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta 2 komun. Balkoia. Trastelekua.
 - TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Despentsa. Balkoia.
 - UNDA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
 - URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

ETXEBIZITZAK SALGAI

SAN FAUSTO



- 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. **85.000€.**

OLLERIA (Landako)



- 100 m2. 3 logela, 2komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garaie handia. **275.000€.**

IURRETA (Maspe)



- 80 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Berogailua. Igogailua. **125.000€.**

MATIENA



- 4 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela terrazarekin. Garaiea aukeran. **165.000€.**

IBAIZABAL



- 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta garaiea.

BERRIZ. B. GABIOLA



- 110 m2. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Trastelekua eta garaiea aukeran. **180.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

· *Etorri ikustera* ·



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrión aukera oso onak!



Durangoko herrigunean



*Energia-eraginkortasun
handiko etxebizitzak*



Hiriko txaletak



Oiz mendira begiratokiak




Leku zabalak

www.zarateyelexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 816 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Abenduaren 20an, 17:00etan,
Elorriko Arriolan

Kode postala 00

Umeentzako antzerki emanaldia izango da, etzi, Elorriko Arriola antzokian ikusgai, Teatre Engruna konpainiaren 'Kode postala 00', hain zuzen ere. Poesia, kolorea eta magia dira antzerki ikuskizun horren osagaiak, eta bizi dugun teknologia bidezko komunikazioaren aroan, posta arruntaren xarma aldarrikatuko dute.

Antzerkia

:: DURANGO

ABENDUAREN 20an

18:00etan, 'Moby Dick', San Agustinen.

:: ELORRIO

ABENDUAREN 20an

17:00etan, 'Kode postala 00' umeentzako antzezlan, Arriolan.

Musika

:: ABADIÑO

ABENDUAREN 26an

19:30ean, Alize Mendizabal organista eta Celine Victores-Benavente, gabonetako kontzertuan, San Trokaz elizan.

:: DURANGO

ABENDUAREN 18an

19:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolako urte amaierako kontzertua, San Agustin kulturgunean.

22:00etan, Grooving Lines, Plateruenean.

ABENDUAREN 19an

18:00etan, Centro Palentino Castellano leonés-ek antolatutako VII. Gabon kanten emanaldia, San Agustin kulturgunean.

20:15ean, Jesus Martin Moro (Donibane Lohitzuneko organista), San Frantzisko monastegian.

22:00etan, Lokaletik At musika lehiaketaren finala, Plateruenean.

ABENDUAREN 20an

13:00etan, Durangaldeko txistulariak, Durangaldeko Metalak, Hari boskotea eta Done Zizili abesbatzaren Gabonetako kontzertua, Jesuiten elizan.

:: ZORNOTZA

ABENDUAREN 18an

21:00etan, Zubiatur Musika eskolako Gabonetako kontzertua, Zornotza Aretoa.

Erakusketa

:: DURANGO

URTARRILAREN 3ra arte

Ismael Iglesiasen 'Amén, zu hor ta ni hemen' erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

Berbaldia

:: ABADIÑO

ABENDUAREN 18an

18:00etan, Zigor Iturrieta, 'Nepal + Transpirenaica', Gaztetxean.

:: DURANGO

ABENDUAREN 19an

19:30ean, 'Vaga Totes' (Emakumeen greba) ekimenaren inguruko berbaldia, Pinondon.

Tailerra

:: MALLABIA

ABENDUAREN 18an

19:00etan, Ainara Santamaria, Maitasun Erromantikoaren inguruan, Herriko tabernan.

Elkartasun asteburua

:: ABADIÑO

ABENDUAREN 18an

20:00etan, enkartelada, Txanporta plazan.

20:30ean, luntxa, gaztetxean.

22:30ean, bertso saioa: Maialen Lujanbio, Txaber Altube, Amets Arzallus eta Sustrai Colina, probalekuan. Gai-jartzailea, Fredi Paia.

ABENDUAREN 19an

10:00etan, Astola-Gaztelua kronoigoera.

12:30ean, kalejira Matienako frontoitik, trikitalari eta dantzariekin.

14:30ean, bazkaria Matienako frontoian. Ondoren, Daltondarrak taldeagaz musika emanaldia.

19:30ean, Elektrotzaranga Emayook.

22:00etan, Worth It, Puto Bastardo eta Baske Street Boys, Zaldurrekan.

Bertsoak

:: DURANGO

ABENDUAREN 30an

22:30ean, Urteko Azken Bertso Saioa, Plateruenean.

Aurkezpena

:: DURANGO

ABENDUAREN 21ean

19:00etan, Ahoztar Zelaieta, 'Kutxabank, El saqueo de Euskal Herria' liburua aurkezten, Sapuetxen.

Jaialdia

:: DURANGO

ABENDUAREN 19an

12:00etan, Bartzelona eta Madrilgo sarekada errepresiboei buruzko berbaldia, Sapuetxen.

14:30ean, bazkaria, Sapuetxen.

17:00etan, 'Kartzela gure azalean (gorputzeko semiotika penala)' berbaldia, Oier Gonzalezen eskutik.

Ondoren, Burdin-hariak zainetan.

:: ZALDIBAR
(Tsunami Laranja)

ABENDUAREN 19an

10:00etan, maratoi solidarioaren hasiera.

10:00etatik 12:00etara, umeentzako tailerrak.

11:00etan, Berrizko Gaztetxeko Batukada eta gimnasio erritmiko erakustaldia.

12:00etan, umeentzako antzerkia eta kale animazioa.

13:00etan, Artaburuak taldearen kontzertua.

14:00etan, Zaldibar eta Senegalgo musikarien perkusioa.

16:30ean, Zaldia, Eibar eta Barakaldo futbol taldeetako kimuen partidak.

17:00etan, Zaldia eta Tabira taldeetako beteranoen saskibalo partidak.

18:00etan, Itziar Gamero ipuin kontalaria

19:00etan, Deiedra, Zebel Rock eta Ravolta Permanent taldeen kontzertua.

00:00etan, Mesa Rock, Sorgin tabernan.

Kontalaria

:: ABADIÑO

ABENDUAREN 22an

18:00etan, Eneko Haritza, Udal Mediatekan.

:: BERRIZ

ABENDUAREN 18an

18:00etan, 'Kontu kantari', kultur etxean.

ABENDUAREN 19an

12:15ean, 'Ipuin lotsatiak', kultur etxean.

:: IURRETA

ABENDUAREN 18an

20:00etan, Roberto Mezquitaren 'Cómo me convertí en un narrador folk y otras historias', Herri Bibliotekan.

ABENDUAREN 30an

18:00etan, Hiru urtetik gorakoentzako ipuin kontalaria ingelesez: 'Santa's Elves', Bibliotekan.

Proiektzioa

:: DURANGO


ABENDUAREN 29an

19:00etan, 'Xalbador, izana eta izena' dokumentalaren emanaldia, eta solasaldia Eneko Dorronsoro eta Xabier Amurizagaz, Plateruenean.

:: MALLABIA

ABENDUAREN 26an

19:00etan, 'Arrakalak' dokumentala, Herrikoan.



:: DURANGO | ZUGAZA

Star Wars El despertar de la fuerza

- barikua 18: 19:30/22:00
- zapatua 19: 16:45/19:30/22:30
- domeka 20: 16:30/19:30
- astelehena 21: 18:3/21:00
- martitena 22: 20:00

2. ARETOA

El viaje de Arlo

- zapatua 19: 16:45
- domeka 20: 16:30

3. ARETOA

8 apellidos catalanes

- barikua 18: 22:00
- zapatua 19: 22:30
- domeka 20: 21:00
- astelehena 21: 18:30

Truman

- barikua 18: 19:30
- zapatua 19: 19:30
- domeka 20: 18:45
- astelehena 21: 21:00
- martitena 22: 20:00

Koko. Dragoi txikia

- zapatua 19: 16:45
- domeka 20: 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA
Paulina

- zapatua 19: 22:00
- domeka 20: 20:00
- astelehena 21: 20:00

:: ZORNOTZA |
ZORNOTZA ARETOA

Star Wars: El despertar de la fuerza

- zapatua 19: 17:00/19:30/22:00
- domeka 20: 17:00/20:00
- astelehena 21: 20:15





Carlitos y Snoopy. Peanuts


- zapatua 26: 17:00
- zapatua 27: 17:00

> BOTIKAK

BARIKUA, 18 09:00-09:00	ASTELEHENA, 21 09:00-09:00
Navarro Artekalea 6 - Durango	De Diego Intxaurren 22. - Durango
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	09:00-22:00
09:00-22:00	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	22:00-09:00
ZAPATUA, 19 09:00-09:00	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Irigoien Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	MARTITZENA, 22 09:00-09:00
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango
09:00-13:30	09:00-22:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Navarro Artekalea 6 - Durango	22:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango	EGUAZTENA, 23 09:00-09:00
Campillo Montevideo etorb. 24 - Durango	Gaztelumendi J.A. Abasolo 2 - Durango
Unamuzaga Muruetatorre 2C - Durango	09:00-22:00
De Diego Intxaurren 22. - Durango	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Bartolome Gabiola 2 - Berriz	22:00-09:00
Larrañaga-Balentiaga Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
Melero, Rosa Mari San Pedro 31 - Zornotza	EGUENA, 24 09:00-22:00
09:00-22:00	Balenciaga Ezkurdi plaza 8 - Durango
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
DOMEKA, 20 09:00-09:00	22:00-09:00
Bazan Diaz Uribarri 5 - Durango	Navarro Artekalea 6 - Durango
Iruarrizaga, Karmele San Miguel 15 - Zornotza	Aramburu, Maria Isabel-Guarrotxena, Javier Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00	
Sarasketa, Diego Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	

> EGURALDIA

ZAPATUA	20° / 12°	
IGANDEA	17° / 9°	
ASTELEHENA	16° / 9°	
ASTEARTEA	17° / 8°	

> ZORION AGURRAK
 zorionak@anboto.org
eguztieneko 14:00ak arteko epea


Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

 Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



> Abenduaren 17an 23 urte bete ditu Jabik. Zorionak **Jabitu!** Aita, ama eta zure anaiaren partez! Jarraitu beti bezain alaia izaten. Muxu eta besarkada handia!!



> Berrizko **Izar Blancok** abenduaren 21ean 5 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi bat Unax eta etxekoen partez. Ondo pasau!



> Abenduran 15ean urteak bete ditu. Zorionaak **Paxiii!** Etxekoen partez besarkada handia! Aupa Athletic!




> Zorionak, potxola! Ondo pasa eta egun ona izan! Muxu handi bat denon partez.



> Matienako dantzari polit honek 9 urte egingo dauz abenduaren 23an. Zorionak **Maider!** Aita, ama, eta Abadiño, Durango eta Mañaritik



> Zorionak, **Zigor**, denon partez. Muxu bat eta pastelak ekarri!



> **Arhane** maitea! Zorionak pitxintxu geurea! Zein handia zauden zure 6 urtetxuekin! Askok maite zaitugu!



> Abenduaren 15ean neskatila honek urteak bete ditu. Beti bezain gazte jarraitu! Seme-alabak, aitate eta Adeitxoren partez. Zorionak, amama **Josune!**



> Abenduaren 24an **Araiak** 6 urte beteko ditu. Zorionak, pitxin, Amets, aitatxo ta amatxoren partez. Ilargiraino eta bueltan maite zaitugu!!



> Bi artista hauek urteak egiten dabez. **Telmok** 2 urte 16an, eta **Martinek** 4 urte 21ean. Familiaren partez, mosu handi bat.



Hotel Areatza
★★★ **Balneario**
Oparia
topetan
Olentzero egunerako?

informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705

www.hotelbalnearioareatza.com

Menu Bereziak zure ospakizunetarako.

Aukeratu gure
Bonu Opariak

* Masajeak, Zirkuitu termalak,
Bonu gastronomikoak,
Bainu hidromasaje bikoitzak,
Estalkiak, Fisioterapia,
Hotel+bainuetxeko bonuak

28€-tik aurrera



“Whatsapp-a ipiniko didatela-eta, esaten diet nahikoa dudala nik”

Telefonoa heldu zenean, larakoekin telefonista hasi zen, Berrio Otxoa kaleko telefonikan; 15 urte zituen

> AKUILUA Aitziber Basauri 87 urte bete berri ditu Kontxi Gazetabeitiak. Telefonista aritu zen, 30 urtean, eta beste hainbat emakumeren testigantzagaz batera jaso dute berea ere ‘Atzoko hitzak josten’ liburuan. Lau biloba eta hiru birbiloba dituen honetan, aktore ere aritu da.

Badakigu Bizkaia Irratian 100dik gora pertsonen zoriendu zaituela.

Bai, 200dik gora izango dira. Eta, oraindik, baten bat falta da. Baina, bueno, neuk ere zoriontzen ditut, Bizkaia Irratik. Apuntatuta ditut lagunak eta ezagunen urtegunak, eta euren egunez zoriondu egiten ditut. Bertora be joan ginen behin, bazkaria be izan genuen. Egunen baten bai eta bestean be bai entzuten dut Bizkaia Irratia.

Irratia entzutea gustatzen zaizu...

Bai, 08:00etan isiotzen da irratia, bera bakarrik; konpainia egiten dit.

Telefonoa heldu zenean, 1945. urte inguruan, telefonista ibili zinen lanean, larakoekin.

Bai, hiru ahizpa ibili ginen Berrio Otxoa kaleko telefonikan; 15 urtegi hasi nintzen ni. Koadro bi genituen telefonoekin. Telefonoz deitzen zigutenean, txapatxo bat bajatzen zen, larakoa sartu, eta bategi edo bestegegi ipintzeko eskatzen zigutenean, telefonoz linea lortzean beste larakoa ipini, eta listo! Bertara ere etortzen zen jen-

dea, inorekin telefonoz berba egiteko. 24 urtegi ezkondu, eta Buzkantz kalera etorri nintzen.

Telefonista jarraitu zenuen?

Frutategia jarri neban. Baina, semea hil zitzaidan, zazpi urtegi, eta frutategia beste bati utzi nion. Horren ostean, lau ordu egiten nituen telefonikan. Okindegia ere izan neban. Horregaz jubilaun nintzen.

Bizi guztia lanean.

Bai ba! Apopiloak be eduki nituen.

Ikasten ibilitakoa zara.

Lau ahiztak eskolan ibili ginen, hiru urtean. Ahizta nagusia, Katalina, anbulantzia gidatzen ere ibiltzen zen.

Ez zineten emakume asko izango, orduan, ikasi eta lanean ibilitakoak.

Bueno... familia bat behar zen telefonikan aritzeko. Miotara, baserrira etorri ziren idazten, kontuak egiten nola moldatzen ginen ikusteko. Ama egon zen lehenengo arduradun, eta, gero Katalina, ahizta nagusia.

Eta, orain, biloba eta birbilobekin...

Bai! Baina, badaukat beste zaletasun bat. Hileko lehenengo eguaztenetan, odol-emoleen autobusa datorrenerako, lekua gordetzen dut; ogia be eroaten diet. Buzkantz elkartean ematen dute odola. Senarra zenak egiten zuen, eta, orain, nik jarraitzen dut. Gero, elizara joaten naiz, mezara eta errosarioa errezatzen.

Larakoekin ibili zinen telefonista, eta orain mugikorak barra-barra.

Asko ibiltzen dut mugikorra. Dena daukat hor sartuta. Whatsapp-a ipiniko didatela-eta, esan diet nahikoa dudala nik (barrez).

Aktore lanetan ere aritua zara Argi pelikulan.

Bai, pare bat bider agertzen naiz. Argigaz batera dendan, bezero moduan baten; gero, alargun paperean ere bai. Ganbaran gordetako hainbat arropa be utzi diegu pelikularako.

Eta, zelan joan da?

Oso ondo. Datorren urte hasieran es-

treinatuko da. Gogoia dut ikusteko! (barrez).

Lobak dituzu HAN musika taldean. Joan zara ikustera?

Kanpoan ez, baina, Elorrion jo dutenean, hiru ahiztok joan ginen ikustera. Tapoiak ipintzeko be esan zidaten.. ez zen behar tapoirik, ederra zen!

Sasoi bateko musikagaz zerikusirik ez...

Ez. Baina, oso dantzaria izan naiz ni, ez pentsa! Plazako balkoian jarritako gramolagaz izaten ziren erromeriak gure sasoiaren, domeketan.



LAUHORTZA

JASONE AGIRRE GARITAONANDIA

Kazetaria



Xaboa

Fideltasuna, edo fideltasun eza, nahiko kapritxosoa izaten da, batzuetan. Eta ez naiz kontu erromantikoez ari. Arropa garbigailu bat erosi izan dudanetan egin izan dut “hausnarketa” hori, gogora etortzen zaidalako amak erosi zuen lehen “Labadora automatikoa”. Danborraren barruan, marka ezagun bateko xaboi paketetxo bat zekarren opari. Aparatu zaharrean erabiltzen zituen xaboi eskama usainbakoetara ohituta, aurre-rapenaren usaina-edo, ez dakit nik, iritzi nion automatikaren xaboi usain gozo berri hari. Gero, amak, hura garestiegia zela eta, beste marka bat erosten bazuen ere, nik ez dut sekula ahaztu lehen usain hura.

Nik neuk beti estimatu izango ditut pertsona batzuk, noizbait keinu politen bat euki izan dutelako nirekin

Eta zelan diren gauzak, neure etxerako ze xaboi erosi erabaki behar izan nuenean, ez nuen zalantzarik izan. Lehen usain hura gura nuen nik. Harrez geroztik, ez dut markaz aldatu. Kurioso da zelan lor litekeen marka batekiko fideltasuna pakete ziztrin batekin.

Jendearekin ere berdin gertatzen dela uste dut. Nik neuk beti estimatu izango ditut pertsona batzuk, noizbait keinu politen bat euki izan dutelako nirekin. Berdin dio, gero, adiskideak izan ez bagara ere, ez ditut sekula ahaztuko, euren alde egingo dut beti. Kontrara ere gertatu izan zait, oster, egia esateko. Ederra litzateke, baina, besteek ere norbera horrela gogoratzea, xaboi paketetxo bat legez.

Bizkarra
Jatetxea

Gabonetan janaria prestatzeko gogorik ez? Geuk lagunduko dizugu

Etxera eroateko janaria, betikoa, etxekoaren modukoa

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO · Tel.: 946 812 026